



EUSKAL HERRIA ZUTIK ETA

abian

E z k e r A b e r t z a l e a

abian

TXOSTENA

AURKIBIDEA

0. Sarrera	5
1. Ziklo aldaketa, balantzea	6
1.1 Zutik Euskal Herria, fase berriko giltzarri	6
1.2. Estrategiaren garapenerako eremuak	10
1.2.1. Independentziaren eta burujabetzaren aldeko indarrak biltzea	10
1.2.2. Askatasun demokratikoen eta presoen aldeko dinamikak	11
1.2.3. Prozesu demokratikorako lanabesak eta ekimenak	12
1.2.4. Nazio eraikuntza eta eraldaketa soziala ziklo aldaketan kokatzea	12
1.2.5. Ezker Abertzalea bera indarberritzeko bidea	13
1.3. Kanpoko faktoreak	15
1.3.1. Krisi ekonomikoa	15
1.3.2. Estatu espainolaren krisia	15
1.3.3. Kataluniako prozesua	16
1.3.4. Euskal gizartean gertatutako aldaketak.	16
2. Abagunearen gutxieneko azterketa	16
2.1. Nazioartea	16
2.1.1. Europa	18
2.1.2. Estatu frantsesa	20
2.1.3 Estatu espainola	21
2.2 Euskal Herria	22
2.2.1. Egun bizi dugun Euskal Herriaz	22
2.2.2. Azken urteotako norabideaz	22
3. Ezker Abertzalearen proiektu politikoa	23
4. Nora eta nola goaz, strategiaren gaurkotzea: hautabide independentista	27
4.1. Eskaintza independentista birsortu	28
4.2. Herrigintza ardatz	29
4.2.1. Jardunbideak	31
4.3. Norabide independentista proposamen taktikoetatik garatuz	32
4.4. Gatazkaren ondorioak, konponbidearen lerroa	36
4.4.1. Euskal preso eta iheslariak etxeratzea.	38
4.4.2. Biktimak, elkarbizitza eta memoria	39
4.4.3. Armen deuseztatzea eta armategien desegitea	39
4.4.4. Indar okupatzaileen irteera	39
4.4.5. Errepresioa eta askatasun demokratikoak	40
4.4.6. Ezker Abertzalearen funtzio zehatzei begira	40
5. Antolaketaz hausnartzeko irizpideak	40
5.1. Ezker Abertzalearen egituraketa, erreferentzia nagusi baten beharra	44
5.2. Indar metaketarako erreferentzi politiko/instituzional nagusiak	45
5.3. Prozesu independentistaren egituraketan, zuzendaritza kolektiboa	46

0. SARRERA

Abian deituriko eztabaida ariketa egiten ari da Ezker Abertzalea, nazio askapena eta askapen soziala helburu eraikitako mugimendu iraultzailea.

Ezker Abertzaleak ibilbide jakina du: frankismoari aurre egin zion, haustura demokratikoaren aldeko erreforma Euskal Herrian egonkortzea galarazi zuen, konponbiderako eta eraldaketarako zenbait proposamen erdigune politikoan kokatzen jakin izan du behin baino gehiagotan, eta ziklo politikoaren aldaketa erdietsi du Zutik Euskal Herria-ren bidez.

Ipar Euskal Herrian, Enbata mugimenduak jarritako abertzaletasun garaikidearen oinarrietan sakonduz, estatu frantsesaren erabateko ukazioaren aitzinean, Euskal Herria eta euskal nortasunaren aitortzaren aldeko borroka astindu du Ezker Abertzaleak.

Bere gorabehera guztiekin, soka oso bat osatzen du ibilbide horrek. Eztabaidaren testuinguru honen baitan, komenigarria da abiapuntutzat bi elementu hartzea. Lehena: Ezker Abertzaleko kideek ez dute egindako apustu eta hartutako erabaki guztiekin bat etorri behar; haien zilegitasuna onartu behar dute. Bigarrena: Ezker Abertzalea ez da garapenik eta eraldaketarik ez duen izate aldagaitza. Are gehiago, beharbada, estrategia aldaketak eskatzen zuen behar besteko eraberritzea egin ez izana, kultura politiko gaurkotuagoa osatze aldera, zenbait arazoren sorburu izan da.

Hori aipatuta, txosten honen helburu nagusia Zutik Euskal Herria-k ekarri zuen estrategia aldaketak eragindako ziklo politikoan aurrera nola egin behar dugun zehaztea da. Estrategia gaurkutzeko ariketa da, beraz, baina aldi berean Ezker Abertzalearen nortasuna eta batasuna berrindartzeko balio beharko luke. Ibilbidearen balantzea eta fase politikoaren azterketa ere egingo dugu, jakina, baina betiere aurrera begira norabide argi bat marrazteko asmoarekin.

Eztabaida prozesu honen lehenengo fasean iritzi eta ideia ugari jaso ditugu. Horiek denak aztertu eta sailkatu ez ezik, han eta hemen agertu diren proposamen zehatzak ere dagokienean bideratuko dira. Abian, azken batean, pasabide bat baita, katalizatzaile bat, gerora beste eztabaida zehatzago batzuetan eta antolakunde bakoitzean jarraitu behar duena, eta azken buruan praktika politikoan isla izango duena. Funtsezkoa izango da, esate baterako, hurrengo udaberrirako Sortuk iragarri duen ez-ohiko Kongresua. Nolanahi ere, Abian prozesuak ez du zalantzan jarri nahi antolakundearen erabakitzeko guneen zilegitasuna. Erabakiak, azken batean, hor hartu beharko ditu, bakoitzak berean, kidegoak, Abian prozesuan hartutako erabakiekiko koherentzian.

Horrenbestez, oraingoan, txosten honek irudikatzen duen norabide orokorra berresten dugun ala ez erabaki behar dugu. Horixe da guztion artean ebatzi beharrekoa. Antolakundeek egingo dituzten ondorengo eztabaidetan izango dute xehetasunetan sartzeko, zuzenketak egiteko eta ezberdintasunak argitzeko aukera, norberak bere esparrura egokituta.

Estrategia orokorra taxutzeko lanabes hau ontzat emanda, txostenaren irizpideek lurra hartu beharko dute, ildo eta jarduera politiko zehaztuz eta antolakuntza eredu zein kultura politiko egokituz, bereziki zenbait alorretan.

1. ZIKLO ALDAKETA, BALANTZEA

Gehien aipatu diren arazo eta lorpenen deskripzio zerrenda baino gehiago, irakurketa integratuagoa egiten saiatuko gara atal honetan, askotan lorpen eta gabezien zerrendatze hutsak hausnarketa gehiegi zatitzen duelako.

1.1 Zutik Euskal Herria, fase berriko giltzarri

Baldintza politikoak eta sozialak ereinda zeudelako, eta, aldi berean, aurreko estrategiak baldintza horiek denak askatzeko ezintasun zantzu handiak azaltzen zituelako, aldaketa politiko eta soziala gauzatzeko bidean estrategia aldatzeko apustu historikoa egin zuen Ezker Abertzaleak.

Historiako beste bi pasarte nagusirekin soilik parekatu daitezkeen neurriko erabakia izan zen: frankismoaren erabateko zabalkuntzari aurre egiteko izan zen susperraldia –ETA sortu zen orduan– eta frankismoaren ondoren haustura demokratikoaren alde erreforma egonkortzea galarazteko hartutako konpromisoa.

Zutik Euskal Herria fase politikoa aldatzeko pasabidea izan zen. Alde batetik, aurreko fasean egindako lana eta borroka kapitalizatzeko beharra nabarmendu zuen. Bestetik, aurreko fasean jada nabaria zen aurrera egin ahal izateko ezintasun estrukturala gainditzea ahalbideratu zuen autokritikaren bidez. Estrategia aldaketa askapen prozesuan aurrera egiteko ezinbestekoa zela iritzita burutu zen. Baina berez erabaki estrategikoa zena –eta dena– konponbide prozesua abiarazteko palanka gisa erabiltzen saiatu zen Ezker Abertzalea eta, bereziki, ETA.

Estrategia aldaketak urteotan egiaztatu duen lehen ondorio nagusia hau izan da: egoera politikoa errotik mugitu du, beste aukera politiko batzuk sortuz, baina aldi berean, zer esanik ez, korapilo eta erronka berriak sortu ditu. Lehenengo emaitza bat-batekoa izan zen, ikusgarria, herriak berehala aitortu baitzion sinesgarritasuna hautatutako bideari, aldaketa horrekin herritar askoren nahiarekin bat egiten jakin izan genuela argi utziz.

Horren ondorioak Euskal Herrian ez ezik, Estatuan ere nabarmenak izan ziren. Espainiar estatuak ustekabean, gehien behar zuenean, galdu baitzuen azken hamarkadetako eskemaren funtsa –terrorismoa versus demokrazia–. Zehazki, krisi anitzkoitz batek –krisi ekonomiko, sozial nahiz territoriala– bete betean jotzen zuen momentuan.

Estrategia aldaketaren hasierako arrakastaren ondorioz, alarma gorriak piztu ziren Estatu espainolean, baita beste eragile batzuegan ere. Euskal Herriaren eta estatuen arteko gatazkaren koordinadak aldaketaren alde oso azkar mugitu izanak eta, neurri berean, unionismoak nabarmen atzera egin izanak PPren blokeo estrategia –gerora inboluzio ere bilakatuko zena– indartu zuen, eta PSOEk ere Aiete aurreko posizioetatik atzera egin zuen. Gatazkaren ondorioen alorrean jarritako galga –presoen gaian, zehazki– mendeku gosea asetzeko baino haragoko beste zerbait ere bada: prozesu politikoa baldintzatzeko eta okertzeko saioa, estatu-hautuaren dimentsioa duena.

EAJ ere kasik hasieratik prozesu politikoa mantsotzen eta, azken garaian, desitxuratzen saiatu da, Kataluniako eta Eskoziako prozesuen ingurumarian, independentismoak izan zezakeen balizko hazkundearen beldur.

Arrazoi eta ikuspuntu ezberdinekin izan arren, bai PP-PSO Eren bai EAJren helburua konponbidearen arloa blokeatzea –urrats txikienik eman gabe– edo zailtzea –aurrebaldintzez betez– izan da. Horren bidez, Ezker Abertzalean baitan zalantza(k) pizteko eta noraezean murgiltzeko helburu garbiarekin.

Ipar Euskal Herrian, aldiz, indar eta eragile guztiek abiarazitako egoera berrian konpromisoak eta atxikimenduak gero eta gehiago trinkotu dituzte, eta hala segitzen dute gaur egun ere. Abiarazitako prozesuak oso ondorio ikusgarriak izan ditu, eta bai gatazkaren muinean bai gatazkaren ondorioen arloetan adostasun handia eta aurrerapauso sendoak erdietsi dira. Indar ezberdinen arteko adostasunak dimentsio berri bat eman ahalko dio arazo politikoaren –Euskal Herriaren ezagutza eta aitortza instituzionalik eza– eztabaidari.

Aietek Ipar Euskal Herrian arrakasta izan du. Alde batetik, gatazkaren nazio izaera finkatu du, Estatu frantsesaren ardura agerian utziz. Bestetik, gizarte eragileen inplikazioa gauzatzea lortu da, tresna zabalen eraketaren bidea –Bake Bidea, Bagoaz plataforma–, eta baita konponbide prozesuaren inguruko ibilbide-orri integral bat adostea ere –Baionako adierazpena–, Parisen bertan zenbait ordezkari eta pertsona ezagunek onetsi dutena –Parisko Konferentzia–. Estatu frantsesak Aietek sortutako egoera berriaz eta Ipar Euskal Herrian konponbide prozesuaren alde dagoen kontsentsu zabalaz ohartu da. Baina baldintzak sortu badira ere, ez da lortu oraindik orain frantses estatua mugiaraztea. Parisko agintariak beti lerrokatu dira Espainiako Gobernuarekin.

Honenbestez, fasearen aldaketa ez da erabatekoa izan. Oraindik ere iraganaren eta geroaren erdian gaude, nahi eta ezinean. Aipatu bezala, estatuen jokabidea da elementu nagusietako bat trantsizioa ez burutzeko. Hipoteka bat izan da eta aurrerantzean hala izango da. Hori horrela onartu behar da.

Izan ere, zehazki estatu espainolarentzat –frantsesa ez dugu oraindik horrelako ataka batean jarri– benetako edozein konponbidek bildu beharko lituzkeen Euskal Herriaren aitortpena eta erabakitze eskubidea onartzea tragedia bat da. Estatuarentzat ez dago ezberdintasunik tarteko akordio batek ekarriko lukeen egoeraren –marko demokratikoaren– eta gure azken helburuaren –independentziaren– artean. Autodeterminazioa eta independentzia gauza bera dira estatuarentzat; biek ala biek sortzen diete urduritasuna, are gehiago euskaldunoi eskaintzeko duten proiektua hain ahula denean. Horregatik, aterabide demokratikorantz urratsik emateari uko egingo dio.

Beste hipoteka nagusietako bat PNVren jokabidea izan da. Hemen ere errealitatea onartu beharra dugu. Ez da alde aurretik PNVrekin lortutako akordiotik abiatuko den burujabetza prozesurik izango. Prozesua abiarazteko lehen urratsa PNVrekin akordio bat lortzea bada, ez da prozesurik izango. Geroago azalduko dugunez, “Euskal Bidea”ren garapenak soilik mugiarazi dezake errealitate hori, hipoteka hori.

Hala ere, arazoak ez dira soilik kanpo faktoreen ondorioz sortu. Ezker Abertzaleak ere gabezi eta oker nabarmenak izan ditu. Blokeoaren esanahiaren irakurketa egokia egiten ez du jakin izan;

ez garaiz, behintzat. Estatuak ere ondo ulertu zuen konponbiderako palankatzat erabiltzen ari ginela estrategiaren aldaketa, eta konponbidea bera tratatu zuenean ez genuen behar bezala ondorioztatu aterabidea strategiaren beraren garapenean zegoela. Lehenik –eta berehalagatazkaren ondorioak eta ondoren prozesu politikoa garatzeko eskemaren bideragarritasunak mugak agerian geratuz.

Modu grafiko batean azaltzearen: egindako mugimenduaren inertziaren baitan surf eginez aski izanen genuela pentsatu genuen hasieran. Alta, gure oinetan agortu da olatua eta ez dugu ulertu mugimendu eraldatzaileak, olatuak baliatu baino gehiago, olatuak sortu behar dituela.

Aldebakartasunetik herri prozesuari ekiteko atzerapenekin batera, halako prozesu batek beharko lukeen ikuspegi soziala txertatzeko –ardatz nagusi bilakatu arte– arazo nabarmenak izan ditugu. Aldez aurretik, krisi ekonomikoak horrelako ariketa bat egitea erraztu behar zuela pentsa bazitekeen ere, gerora ez da horrela gertatu. Zutik Euskal Herria ekarri zuen aurreko eztabaida hasi zenean, krisiaren aitzakiarekin botere ekonomikoak eta politikoak ezartzen ari ziren eskubide murrizketen kontra gehiengo sindikalak antolatutako erantzunak pisu handia izan zuen, aldaketa politiko eta sozialerako masa kritikoa egon bazela egiaztatzen, eta, beraz, estrategia aldaketaren aukera indartzen zuen. Dinamika hori, ordea, ez da urteotan behar beste azkartu. Krisiari emandako erantzuna ez zen aldaketa prozesuaren indargune bihurtu eta are gutxiago burujabetza eremura zabaltzeko erregaia izan. Ez dugu horretan asmatu. Ez zen horrela izatea bideratuko zuen akordio sindikalik lortu, prozesuaren palanka jarduera instituzionalean kokatu zen eta ez genuen asmatu estrategia berriak eremu instituzionalaren eta borroka sozial-sindikalaren arteko dialektika berria sortzeko orduan.

Sindikalistotik eta herri mugimenduetatik zenbait inizatiba garatu dira –Eskubide Sozialen Karta eta Alternatiben Herria aipagarrienak–. EH Bilduk beste eredu sozial baterako ikurrak altxatu ditu –ogasun politika, parte-hartze politikak etabar–. Baina horrek denak ez du burujabetza politikoa-burujabetza ekonomikoa lotura behar beste sendotu. Ez da lortu Euskal Herrian aldaketa sozialak borrokatzeko agenda politiko, instituzional eta sozial adosturik; ez baita eremu politikoaren eta sindikalaren arteko akordiorik eraiki estrategia berriak horretarako baldintzak eskaini arren.

Estatuaren birkokapenak –blokeoaren gainean gero eta gehiago atzera eginez–, EAJren atzera jotzeek eta etenik gabeko aitzakiek –adibidez, Ezker Abertzalearekin bide-orri bat adosteko saioan– eta herri prozesurako indarrak egituratzeko ezintasunek alde batetik bestera, norabide zehatzik gabe, ibiltzea eragin digute, gai batzuetatik bestera –bakea, burujabetza, eredu soziala edota ustelkeriaren salaketa–, herri prozesuaren eta prozesu politikoaren mesedetan ezin izan ditugularik txertatu.

Euskal Bidetik eratorritako aldebakartasunari buruzko gogoeta aurrerapausoa izan da, baina oraingoz ez du nahikoa dialektikarik izan burujabetza prozesuak behar duen izaera transbertsala garatzeko eta Estatuarekin konfrontazio demokratikoan eragiteko. Estatuarekin talkarik gabeko aldebakartasunak ez du jendartean pedagogia politikorik eragingo, ez du indar harreman eta protagonismo berririk sortuko.

Anabasa taktikoaren ondorioz ez da nahikoa gaitasunik izan eztabaida politikoa eta soziala behar bezala kokatzeko fase historiko honen lehentasunen arabera. Nahiz eta Kataluniako eta Eskoziako prozesuek giro egokia sortu, euskal jendarteak ez ditu hain erreferentzia argiak eta

oinarri sendoak izan, salbuespenak salbuespen. Erabakitzeke eskubidearen aldeko dinamika izan da, une jakinetan, fase politikoak eskatzen duen dimentsioaren moduko aktibazioa sortu duen adibide bakarrenetakoa.

Hasitako ibilbide politikoan nolabaiteko geldialdian gaudela egia bada ere, ukaezina da estrategia aldaketak lau lorpen handi ekarri dituela: unionismoa –PP-PSOE– izugarri ahultzea ahalbidetu du, Nafarroan aldaketa politikoak abiarazteko oinarria jarri du, hego zein Ipar Euskal Herrian indar metaketarako tresnak ahalbideratu ditu eta Ipar Euskal Herrian, herri-elkargo bakarraren proposamenarekin lurraldetasunaren lehen mailako aitortzari bidea ireki zaio.

Lorpen horiek irakurketa zabalago batean kokatu daitezke, gainera. Izan ere, fase berriaren ezaugarri nagusietako bat estatu espainiarrari bere egitura juridiko-politikoaren agortzea kroniko bilakatu izana da. Borroka armatua aitzakiatzat hartuta gobernuek eztabaida politikoan lortzen zuten isiltasuna desagertu den neurrian beraien proiektuaren hutsuneak are eta argiago azaldu dira. 78an indarrean jarritako erregimena inoiz ez bezala dago auzitan. Horregatik esan daiteke Nafarroako erregimena gobernutik botatzea lortu izana horren beste erakusle bat dela. Ezker Abertzaleak behartutako ziklo aldaketa eta erregimenaren gainbehera prozesua une berean gertatu izanak –elkarri eraginez– aldaketa ekarri dute Nafarroa Garaira.

Horri guztiari aurre egiteko asmoz, estatu espainola bereziki, enfrontamenduaren aurreko zikloa luzatzen saiatu da, Euskal Herrian erabat ahul den eremuan –eremu politikoan, hain zuzen– mugimenduak galarazteko –PPn mugimendu txikiak sortzen duen lurrikara eta ezegonkortasuna ikusi ditugu–. Fase berria bete-betean zabaltzea oztopatzeko modurik eraginkorrena konponbidea tratatzea du. Blokeo/atzera egite egoera horrek prozesuaren motor nagusienetarikoa izan behar duen Ezker Abertzaleari arazoak ekarri dizkio. Blokeoa Estatu posizioa da, ez soilik hautu taktikoa, eta Estatu espainolak ez du inolako premiarik konponbidea errazteko, hortik ez duela ezer onik aterako uste baitu.

Horregatik, egoera horretan, beste lorpen batzuen balioa nabarmendu behar da, lorpen horiek soilik fase honetan eskuratu ahal baikenitzakeen. Hala nola legalizazioa eta erakundeetan lortutako boterea –hori dena mugatua izanda ere– eta hainbat presori zigorra luzatzeko doktrina indargabetzea, zenbait iheslariren etxeratzean emandako pausuak, edota zenbait epaiketetan zigorrak murriztu/indargabetzea, adibidez 35/02 epaiketan akordio aukera ireki izana, etb. Horiek denak ez dituzte oparitu, ez dira Ezker Abertzaleak egindako aldebakarreko urratsei fede onez emandako ordainak, aldebakartasunetik sortutako indar harremanen bidez ederki kostata eskuratutako lorpenak baizik.

Ziklo berriak eragileen arteko eztabaida eta mugimendu politikoak azkartuko zituela uste genuen. Halaxe izan da lurralde batzuetan, Ipar Euskal Herrian eta Nafarroan kasu. EAEko eremua dugu une honetan tratatuena –aipatu dugu jadanik EAJren ardura horretan–. Halere, oro har, Euskal Herrian aldaketa politiko eta sozialaren aldeko indarrak ugaritu direla esan daiteke, eta, beste faktore batzuk tarteko –Eskozia eta Katalunia–, erabakitzeke eskubidearen aldeko iritzia nagusitu eta finkatu dela.

Ez dugu oraingoz baldintza horiei norabide jakin bat ematea lortu, nahiz eta estatuen proiektu estrategikoa ahuldu den eta independentziaren alde egiteko aukerak indartzeko baldintzak izan. Ez dugu guk geuk sortutakoa kudeatzen jakin. Horrela uler daiteke, adibidez, azken

hauteskundeetan Podemosek lortutako arrakasta, Euskal Herrian Estatuan baino askoz ere handiagoa izatea.

Laburbilduz, estrategia berrituak bere potentzialitatea erakutsi duela esan daiteke, berau erabat askatzea lortu ez bada ere. Halere, halako apustu batek sendotasuna lortzeko zutabeak zeintzuk izan behar duten argi bezain garbi geratu da. Etorkizuneko zutabeak, hain zuzen ere:

- **Herri babes**a, indar metaketa eta herri aktibazioa. Prozesuaren berme bakarrak dira. Herri babesak eta herri aktibazioak soilik bermatuko baitute strategiaren iraunkortasuna.
- **Aldebakartasuna**. Ezker Abertzalearena, egoera berriak sortzeko. Euskal Herriarena, herri prozesua gauzatzeko. Aldebakartasuna hitz “fetitxe” bilakatu aurretik argitu beharra dago helburua eta gogoia alde askotariko prozesua lortzea dela. Une historiko honetan, prozesua, funtsean, Euskal Herriatik Euskal Herrira begirakoa da. Ahalik eta eragile gehienen parte-hartzearekin eta nazioarteko eragileen inplikazioarekin. Ezker Abertzalearen ekimenak bere horretan, egoera mugiarazteko eta aukera berriak sortzeko balioko badu ere, ez da nahikoa izango prozesua modu erabakigarrian aurreratzeko.
- **Konfrontazio demokratikoa**. Aldebikotasunik ezean, ezinbestean maila gorena hartuko du. Oraindik ez gara horra iritsi. Konfrontazio demokratikoa euskal herritarren gehiengoaren legitimitatea demokratizazio prozesua oztopatzen duten botere formal eta faktikoei kontrajartzeari deritzogu. Konfrontazio horrek ekimen eta egitasmo sortzaileak indarberritzea-aktibatzea eta indar-harreman berriak sortzea izango du funtsezko helburu.

1.2. Estrategiaren garapenerako eremuak

Zutik Euskal Herria ebazpenak estrategia berrituak jaso beharreko lan eremu batzuk aurreikusi zituen. Alor horietan egindakoa aztertuz osatuko dugu balantzea.

1.2.1. Independentziaren eta burujabetzaren aldeko indarrak biltzea

Indar abertzale/soberanistek irismen luzeko akordioak gauzatu dituzte arlo politikoan. EH Bildu eta EH Bai dira horien ondorio. Funtsezkoak dira estrategia berriarentzako. Hortik Fronte Zabala egitasmoa etorriko da, oraindik zehaztasun eta argitasun nahikorik ez duena.

Kezka eragin behar digu Bilduk ekarri zuen berrikuntzak freskotasuna galdu izanak, eta maila batean hasiera hartan eremu desberdinetako sektore eta pertsonak erakartzeko izan zuen gaitasuna mugatu izanak.

Arrisku batzuk ikusi ahal izan ditugu jada, aliantza horietako alderdiek bere nortasun propioa lausotu izana, esaterako. Helburua ezin daiteke izan guztiek printzipio ideologiko eta helburu estrategiko denak konpartitzea hitzez hitz. Hori ez da ez koalizio bat ezta Fronte Zabala bat ere. Hori alderdi bakarra da.

Oso kaltegarria litzateke, zentzu horretan, EH Bildu eta Ezker Abertzalearen identitateak erabat nahastea.

Indar independentistek erakundeetan eragin gaitasun handia eta botere eremu berriak – mugatuak izanda ere– lortu dituzte. Aldaketak eta eraldaketak lortzeko jokaleku garrantzitsua izango da eremu instituzionala aurrerantzean ere.

Bestalde, burujabetza prozesu batek behar duen bultzada sozialari erreparatuta, hutsune nabarmenak izan ditugu. Bloke Herritar Independentista eraikitzeari begira ez dugu aktibazio nahikorik lortu. Burujabetza prozesurako aliantzak ezin dira alderdi edo indar politikoen eremura mugatu. Sindikalgintza, adibidez, Lizarra-Garaziko garaian izandako protagonismotik oso urrun dago. Burujabetzaren auzia eztabaida politikoaren erdigunean kokatzeko eta bertan mantendu ahal izateko herri mugimenduaren eta oro har hauspo sozialaren beharra dago, eta hori oraindik ez dugu artikulatu eta ez diogu, gainera, behar bezalako arreta eta energia eskaini.

Ñabarduraz ñabardura erabakitzeak eskubidearen aldeko dinamikak jendearen atxikimendua izatea maila esanguratsuan lortu du.

Enpresa eta unibertsitate eremuetatik independentziaren aldeko mezua egituratzen hasiak dira. Parametro ekonomikoak eta akademikoak plazaratzea aurrerapausoa da. Zenbait fundazio/eragile lan hori egiten hasi dira. Eta Euskal Estatuaren beharra ideologikoki indartzeko ekarpen teoriko berriak azaldu dira, erronkari «identitatearen» muturretik ez ezik, beste hari batzuetatik –gizon-emakumeen berdintasuna, ongi-izatea, etb.– heldu baitiote. Aipagarria da, zentzu horretan, mugimendu feministatik egiten ari den ekarpena.

1.2.2. Askatasun demokratikoen eta presoaren aldeko dinamikak

Inoiz ez bezalako mobilizazioak izan dira. Halere, horrelako dinamikak egonkortzea oso zaila da. Gobernuak ez dute urrats positiborik egin eta lortu den guztia –Uribetxebarria kartzelatik irtetea, adibidez– oztopo handiak gaudituz eskuratu da. Esan bezala, Estatuak eremu hau tratatuta prozesu osoa tratatu nahi izan du. Baita neurri handi batean lortu ere.

Epaiketa politikoak ez dira iraganeko kontua. Fase berrian presente egon dira. Nahiz eta kasu batzuetan, epaiketa horien emaitza ez izan iraganean ohikoa zena. Halere, halako epaiketen existentzia hutsa, askatasun demokratikoen urrapenaren adierazgarri bat gehiago da. Azpimarratzekoa da Libre dinamikaren baitan artikulatutako mugimendua –herri harresiak, epaiketen aurkako dinamika desberdinak...–.

Atxiloketek segitu dute, nahiz eta, aldi berean, horien kontrako herri erantzuna sendotu egin den. Herri Harresiak edota Ipar Euskal Herrian izandako operazioei herritarrek bat-batean emandako erantzunak mezu garbia eman dute. Euskal Herriko iritziz publikoak barneratuta du horrelako polizia operazioek ez duela inolako zentzurik.

1.2.3. Prozesu demokratikorako lanabesak eta ekimenak

Aieteko Konferentziak elkarrizketa eta negoziazioaren balioa indartu zuen. Euskal Herrian oso errotuta dago adostasunaren aldeko jarrera. Halere, horren ondotik, estatuen eta indar politiko ezberdinen jarrerak elkarrizketa eta negoziazioa bazterrean utzi dituzte neurri handi batean, salbuespenak salbuespen –Ipar Euskal Herria-. Ez daude egun erdigune politikoan, jendartean aldekatasuna izanda ere.

Nazioarteko arreta ez ezik, zenbait eragileren laguntza ere lortu da. Horren adierazle dira Mexiko, Ecuador, Argentina, Uruguay eta beste hainbat tokitan aurrera eramandako konferentziak.

Euskal Herrian erakundeen eta eragileen inplikazioari buruz ezin daiteke balorazio orokorrik egin. Aieteko Konferentziaz gain, urrats eta ekimen oso garrantzitsuak izan dira –Foro Sozialak, Baionako Adierazpena, Parisko Konferentzia-, batzuek besteek baino itzal iraunkorragoa eta sendoagoa izan badute ere. Ipar Euskal Herrian konponbide agenda goitik behera partekatua dela nabarmendu behar da.

Euskal Preso Politikoaren eta Euskal Iheslari Politikoaren kolektiboek ekarpena baldintza egokitan burutzea zaila izan da eta ondorioz, bakoitzak bere erritmoak izan ditu. Batzuetan, oso erreferentzia indartsua izan dute –2013ko abenduko EPPKren adierazpena-. Zenbaitetan, prozesuaren taupadari jarraitzeko zailtasunak izan dituzte, aipatu baldintza bereziak direla-eta. Eta bestetan, aitzindari izan dira –EPPK aldebakartasunaren kontzeptua lantzen azkar hasi zen, gerora etxera bueltatzeko dinamika garrantzitsua abiarazteko-. Blokeo mingarriaren eta errepresioaren gainera aukera handiak ditugu EPPKren adierazpen horren mamia garatzeko, euskal gizartean ere baldintza egokiagoak lortze aldera.

ETAren ekimenak ziklo aldaketarako funtsezko osagaiak izan dira, eta konponbide prozesua abiarazteko eta sakontzeko hartutako konpromisoak bete ditu, zenbaitetan eskatutakoaren gainera –adibidez, Bruselako adierazpenak eskatutakoa baino sendoagoa izan zen 2011ren urtarrileko su-etenen izaera-. Prozesua blokeatu edo mantso nahi izan dutenek, ordea, dinamika gaizto bat jarri zuten indarrean lehen unetik: «Ez da nahikoa».

Gatazkaren konponbidearen arloan ekinbide jarraitua izateko arazo handiak izan dira. Ekimenak egin orduko agortuta geratu dira zenbaitetan, jarraibidea lortu gabe. Jokaleku aldrebesak zeresan handia du horretan, baina onartu behar da Ezker Abertzaleak aldebakartasuna garatzeko hutsuneak izan dituela. Berandu samar ondorioztatu dugu aldebakartasunean dagoela aterabidea.

Era berean, Hego Euskal Herrian, gatazkaren konponbidearen arloan, herri aktibazioa eta borroka ideologikoa ez dira behar beste garatu, eta hutsune hori tarteko gatazkaren izaera politikoaren desitxuraketa eman da.

1.2.4. Nazio eraikuntza eta eraldaketa soziala ziklo aldaketan kokatzea

Nazio eraikuntzan eta herrigintzan fase politikoaren arabera urratsak egiteko zailtasunak izan dira. Bai nazio eraikuntzan bai eraldaketa sozialean, erakundeetatik hautetsi independentistek

ekimenak egin dituzte, baina ez da herri mugimenduarekin eta sindikalgintzarekin beharrezko osagarritasunik lortu.

Herri mugimenduaren errealtateari eta bete dezakeen paperari buruz ere ez dugu azterketa eguneratua, eta horrela zaila da harekiko harremana ondo zehaztea. Herri mugimendu erreala eta autonomia, gai zehatzen inguruan antolatua, egon badago, baina bistan da ez dela asmatu Ezker Abertzaleko kidegoa bi zentzutan lanean jartzen, hau da, Ezker Abertzalearen ekarpena bertara eramaten eta herri mugimenduaren ikuspuntua egituretara ekartzen.

Honek ez du esan nahi urteotan dinamika sozialik egon ez denik. Aipagarria da krisi testuinguruan emakumeen egoeraren prekarizazio orokorrari aurre egiteko mugimendu feministatik izandako jarduna; indarkeria matxistari aurre eginez, abortuaren defentsan eta oro har emakumeen burujabetzaren aldeko borrokan.

Bestetik, bestelako dinamika sozialak ere garatu dira Euskal Herrian barrena, eta bere balioa aitortu behar zaie, Karta Soziala zein Alternatiben Herria kasu. Aipagarriak dira neurri berean udalerrri askotan garatutako prozesu parte-hartzaile berritzaileak.

Euskararen normalizazioaren ildoari dagokionez, noraeza eta kohesio falta izan dira nagusi Ezker Abertzaleak garatu duen ildoan. Ez dugu eragin diskurtso politiko egituratu batekin, ez ditugu konfrontazio politikorako elementuak kokatu. Herri mugimenduan dabiltzan ezker abertzaleko kideekiko deslotura handia izan da. Boterea lortu dugun instituzioetan hizkuntza politika egokiak garatu dira oro har, baina ez dugu lan horri dimentsio soziala emateko baliabiderik garatu.

1.2.5. Ezker Abertzalea bera indarberritzeko bidea

Zutik Euskal Herria antolakuntzaren eta ibilmoldearen eremura eman ez izana da gehien nabarmentzeko faktorea, kulturapolitikoberribatabiaraztea ezinezko bilakatu arte. Antolakuntza, ibilmoldea, praktika politikoa egituratzeko moduak... hori dena ez da erakundetzeari buruzko eztabaida tekniko hutsa. Afera politikoa da, “Zutik Euskal Herria” ebazpenari jarraituta eutsi behar zitzaion lehen mailako eztabaida politikoa. Paradoxikoki, ilegalizazioaren garai gogorrena pasata –oraindik oso-osorik pasa ez bada ere–, aukera gehien eskaintzen zituen unean ez diogu eutsi, eta horrek ondorio negatiboak izan ditu. Bistan da. Ez diegu bertikaltasunari, barne demokrazia gabeziei, erabakien gardentasunari eta beste zenbait konturi behar bezala aurre egin, eta horrek, azkenean, proiektu politikoari kaltetu du.

Zenbaitetan agertutako gaitasun estrategikorik eza ez da “naturala”, ez da halabeharrezko zerbait, gaizki egindako gauzen ondorioa baizik. Besteak beste, gaurkotu ez den antolaketa eta jarduera estilo-ereduaren ondorioa. Aro berria tresna zaharrekin kudeatu nahi izan dugu eta ez du funtzionatu. Jokabide eta joera desegokiak gorpuztu dira gure artean, erabakiak hartzeko garaian, herrietako kideekin erabakiak konpartitzeko garaian informazio aski eta eragiteko aukerak zaindu gabe. Gauzak bestela egin zitezkeen, neurriak har zitezkeen erronkak bestela kudeatzeko, baina ez da egin eta kritika zorrotza egin beharra dago, honek ondorio larriak ekarri dituelako.

Hori dena onartzeak ez ditu justifikatzen fede txarrez eta gezurrekin egin ohi diren kritikak eta akusazioak. Zenbait onartezin bihurtu dira jada. Horiek, halaber, gotortzeko joera ekarri dute, arazoan benetako izaera aztertzeko gaitasuna mugatuz. Ondo bereizi behar da zer den desadostasuna edo kezka eta zer jokabide sabotatzaile/zatitzailea. Askotan, ageri diren kritikak ez dira onartutako estrategiaren kontrako jarrerak, astintze eta ezinegonaren adierazpenak baizik. Ongi ulertu behar dugu hau, eman beharreko erantzuna oso ezberdina baita. Emozioak ez baitira mezu eta azalpen politiko konbentzionalekin kudeatzen. Are gutxiago erantzun bortitzekin. Sarritan, bortitz etortzen zaigun jendeak sentitzen ari den ondoeza adierazi nahi digu, trakets, nahi badugu, baina min egiteko gogorik gabe. Egin dugun aldaketa baten konplexutasuna ulertu behar dugu eta behar bezala kudeatu, Ezker Abertzalearen oreka emozional kolektiboa berreskuratzeko. Pasio komunak berpizteko, elkarrekin borrokatzeko, elkarrekin lan egiteko gozamenak gaurkotuz, XXI. mendeko Ezker Abertzalearen eta euskal borrokaren epika sortuz.

Amnistiaren inguruko eztabaida politikoa desitxuratuz zatiketa saio bat egon da. Egungo estrategiarekin desadostasuna agertu zuten zenbaitek aldarri hori erabiltzea lehenetsi zuten. Gerora amnistiaren aldarrikapenaren bueltan bildu diren guztiak ez dira saio horretako partaide, jakina.

Antolaketa eta ibilmoldeari buruzko balantze honek erakundez erakundeko azterketa bat beharko luke, baina hori bere militante eta egiturek egin beharko dute zehaztasunez, hor baitago arduraren eta zilegitasuna. Abian prozesua ez da organikoa, Ezker Abertzale osoa zeharkatu nahi duen ariketa kolektibo bat baizik, beste eztabaida batzuk eta behar diren erabakiak errazteko.

Nolanahi ere, nabarmena da “zuzendaritza estrategikoa” baten falta izan dela. Ez dela asmatu, Sortuk ez dituelako bere gain hartu -ezintasunengatik edo ereduaren mugengatik, iritzien arabera- hartu beharreko funtzio guztiak, eta antolakundearen arteko harreman guneek ez dutelako halako zereginik bete. “Zuzendaritza estrategikoa” kontzeptua beste fetitxe bat bihurtzeko arriskua ekidin behar dugu eta gai honek strategiaren izaerari lotuta joan beharko du era dinamiko batean.

Bestetik, bada Ezker Abertzaleak bere osotasunean hartutako ibilbide eta konpromiso bat, Prozesu Feministatzat ezagutu izan duguna, gainbeheran etorri zaiguna. Prozesu honek, era adostu batean, gure barne zein kanpoko jardun politikoan ikuspegi eta praktika feminista txertatzeko estrategia bat marraztu zuen. Eta bide hau, azken urteetan erakunde bakoitzean egindako ahalegin isolatuan geratu izanak, aurreko urteetan motore papera jokatu duen Ezker Abertzaleko emakumeen aliantza dispersatzea eragin du, prozesua beraren potentzialitatea lausotuz. Erakundez erakunde bilakaera ezberdina izan da eta balantze propioa eskatzen badu ere, oro har, Ezker Abertzalearen praktika politikoan ez da ikuspegi hau nabarmendu -Ernaiten kasuan salbu-. Era berean, mugatua izan da Barne Planen bidez lortutako emaitza -LABen esperientzia azpimagarria bada ere-, emakumeen parte-hartze kuantitatibo zein kualitatiboan eragiteaz harago, militantzia eremuan eta lan estiloan zein funtzionamenduan eraldaketa eragin nahi zuena. Ikuspegi hau barne demokratizazioaren erronkarekin erabat lotuta dago.

Urteotako beste ondorio bat mugimendu izaera lausotu izana da. Lehenik esan behar da egindako aldaketarekin Ezker Abertzalearen garapen bat ere behar zela, eta behar beste egin ez izana ere arazo izan dela, mugimendu osoaren kapitala aprobetxatze aldera. Bestalde, egia da atzera begirako erreferentziak nahiko distortsionatuak daudela. Esate baterako, ez dira gauza bera Euskal

Nazio Askapenerako Mugimendua kontzeptua indartu zen garaia –“Ezker Abertzalea” eremu soziologikoa definitzeko bakarrik erabili ohi zen– edo ilegalizazioen garaia –Ezker Abertzalea adierazpenak ere egiteko agente politiko definitu moduan agertzen da–. Lehenengo egoera horrela erabakitakoa edo naturalki garatutakoa izan zen; bigarrena, errepresioak behartutakoa. Halere, belaunaldi batzuentzat hori da eskema naturala. Ez da gauza bera mugimendu politiko baten partaide izatea/sentitzea eta mugimendu politiko horren militante izatea, horretarako antolatuta egon behar baita. Norberaren izaera eta izate militante horren eraberritzea dugu funtsezko apustua, Ezker Abertzalearen mugimendu-izaera aktibo politiko gisa ezaugarri eraginkorra izan dadin aurrerantzean ere.

1.3. Kanpoko faktoreak

Bloke honetan zehar aipatu badira ere eta hurrengoan –abagunearen azterketan– azalduko baditugu ere, merezi du zehazki estrategia aldaketak eta apustu politikoak aurreikusten ez zituen eta sekulako eragina izan duten faktoreak elkarren ondoan gogora ekartzea. Nolabait azaltzearen, estrategia aldaketa –2005-2007 negoziazioak agortze zantzuak oso agerian uztean– beste ziklo berri bat irekitzeko beharrean oinarritu zen. Kanpo faktore horiek ez genituen aurreikusi, ez behintzat hartu duten dimentsioan. Ez ditugu ikusi eta apustu berrian integratzen jakin.

1.3.1. Krisi ekonomikoa

Benetan kapitalismoaren egiturazko krisia eta erasoaldi gogorrak esplotazioa areagotu eta herrien zein herritarren bizitza bere osotasunean kolpatzera datorrena. Aldaketa politiko eta soziala lortzeko akuilu behar zuena prozesu politikoan ezin kokatuta ibili gara. Euskal sindikalgintzak eman duen erantzuna eta egindako grebak, ez dira nahikoak izan sindikalismoaren zilegitasuna, pisu politikoa eta eraginkortasuna handitzeko. Sindikalismoa krisian da Europa osoan, eta baita hemen ere. Azken urteotako eraso kapitalistarekin krisia sakonagoa egin da gainera.

Ideologikoki esanguratsua izan dira bai PPren bai EAJren mezuak, maila batean herritarrengan eragina izan baitute: orain, ekonomia da lehentasuna, gero gerokoak. Aipatzekoa baita ere, emakumeengan eragindako probretzea, egoera ekonomikoaz harago, bizi esparru guztietan isla duena –zaintza krisia, inboluzio ideologikoa, indarkeria matxista...–.

1.3.2. Estatu espainolaren krisia

–bipartidismoaren gainbehera, ustelkeria, estatu egituren –Errege Etxea– larrialdia, eredu territorialaren zuloa...–. Sistema politikoaren sinesgarritasunik eza azkartu egin da, eta horrek fenomeno politiko berriak ekarri ditu. Adibide bat jartzearren: 2011n, Estatuan M15 fenomeno gertatzen zen bitartean, Euskal Herrian, Bildu izan zen haize freskoa, ez soilik bozketei begira. Areatzako plazaren irudiak aldaketaren gogoia erakutsi zuen. Gerora, ordea, Estatuan sistema politikoaren krisiak sortutako giroak eta Euskal Herrian prozesua behar adina bideratu ezin izanak, premia sozial eta mobilizazio molde berri horiei arreta gutxi eskaini izanarekin bat, Podemosen alde jokatu dute gurean, azkenaldian behintzat.

1.3.3. Kataluniako prozesua

2008-2009an Ezker Abertzalea aldaketa estrategikorako lehen urratsak egiten ari zenean ez genuen aurreikusi Kataluniak izan zezakeen garapena, sor zezakeen lurrikara politikoa. Ezker Abertzaleak egoera irauli zuen, baina gero ez zen gai izan Kataluniako prozesuak zekartzan elementu berriak inkorporatzeko. Kataluniakoarekin batera bigarren fronte bat ireki behar zela esan bai, baina ez dira horretarako baldintzak behar beste elikatu.

1.3.4. Euskal gizartean gertatutako aldaketak.

Aldaketa soziologiko sakonak bizi ditugu: indibidualizazio joera bortitzak, atxikimendu politikoaren lausotzea, parte-hartze politikoaren inguruko pertzepzio berriak... Epika zaharra ez da erakargarria gizarte postmodernoan. Ezin aipatu gabe utzi komunikazio politikoan eman diren aldaketak –sare sozialak, politikagintzaren mediatizazioa– eta testuinguru berri honetan Ezker Abertzaleak bere burua kokatzeko dituen zailtasunak. A eranskinean egun bizi dugun Euskal Herriaren inguruko ezaugarrietan sakontzen da.

2. ABAGUNEAREN GUTXIENeko AZTERKETA

2.1. Nazioartea

Gerra Hotzaren amaierak garaile garbia utzi zuen: Amerikako Estatu Batuak. Sobietar Batasunaren zapuzketa ondo baino hobeto aprobetxatu zuen Washingtonek bere hegemonia militarra, politikoa, ekonomikoa, komertziala eta kulturala mundu osora hedatzen jarraitzeko, eta bereziki Europa kate motzean lotzeko. Washingtonek tresna guztiak zituen eskura, NATO barne. Orduetik neoliberalismoaren nagusitasuna eztaba daezina da mundu osoan.

Garai aldaketarekin, NATO aktore global bihurtu zen eta bere muga tradizionalak ere gainditzeko erabakia hartu zuen. Europar Batasunaren papera benetan tamalgarria izan da garai guzti honetan: Londonek jarraitu AEBen ondoan jarraitu zuen, Paris Aliantzako egitura militar integratuetara itzuli zen eta Berlinek bere lekuaren bila jarraitzen du.

Neoliberalismoaren nagusitasunaren testuinguruan, sekurokraziaren doktrina hedatu da terrorismoaren edota narkotrafikoaren kontrako gerrak baliatuz interes kapitalistak hauspotzeko. 2001eko irailaren 11ko erasoek ordurako mahai gainean zeuden bi faktore indartu zituzten: faktore islamista eta eromen sekuritarioa. Afganistango eta Irakeko interbentzioen ondorengo Estatu Islamikoa mehatxu larria da, eskualdean botere borrokan ari diren aktoreak –eskualdekoak zein kanpokoak– era desberdinean erabiltzen ari direna. Bestalde, sekurokraziaren eskutik, eskubide politikoaren eta zibilen aurkako gobernu europarren eraso berriak dira gure oinarriko askatasunen aurkako mehatxurik handiena.

Ez da elementu berria baina inoiz baino nabarmenagoa da nazioarteko harremanen osagai ekonomiko-finantzarioa-komertziala dela mundu mailako gerren iturri nagusia, hegemonia globala baitago jokoan. Washington merkatuen eta inbertsioen inguruko itun erabat neoliberalak ari da bultzatzen, berauek Txina -bereziki-, Brasil, Errusia, India eta Hegoafrika frenatzeko erabiliz. BRICS deritzan herrialdeen garapen kapitalistak eta hauen hazkundeari mugak jartzeko ahaleginak kontraesan inter-inperialistak ari dira sortzen, baita inperialismo klasikoaren birdefinizio bat ere. Azken hamarkadetan unipolarra izan den mundua multipolarra bihurtzen ari da, multinazionalen inoizko protagonismo handienarekin.

TTIP delakoa neoliberalismoaren azken eraso da, gogorrenetakoa. Batzuen ustez, behin betikoa. Enpresa handiek diseinatutakoa da, enpresa handien mesederako. Ez dira merkatu itun soilak, ez dira dagoeneko nahiko neurri baxuan dauden muga-zergak kentzeko bakarrik; korporazio handien eraso orokorra da eskubideak eta legediak heldulekurik gabe uzteko: osasun publikoan, nekazaritzan, ingurugiroan edo lan arloan, gutxi batzuk bakarrik aipatzearen. Giza eskubideak eta eskubide politikoak ere jokoan daude. Honekin batera, konpainien negozioa arriskuan jar lezakeen edozein legedi -egun indarrean dagoena edo etor daitekeena- bertan behera lagarazteko ahalegina da, batez ere European.

Neoliberalismoaren beste ezaugarri bat hegemonia kulturala da, ideologiari eta kontsumo era zehatz bati erabat lotutakoa; kultur eremuan, beraz, Euskal Herria bezalako herri txikiek, zer esanik ez estaturik gabekoek, duten erronka itzela da, dagoeneko eraso kapitalistak eta inperialistak kultur industria erraldoia baitu bere esku, identitate eta jokabide askatzaileen aurkako desegituratze arma letala.

Beste elementu klabe bat aldaketa klimatikoa da. Aldaketa klimatikoaren errealitate gordinak eta mehatxuak, berez eta beste ezer gabe, produkzio eta kontsumo eredia oinarritik aldatzeko nahikoa argudio behar zukeen, baina ez da horrela. XXI. mendean lehen erdian kapitalismoak sortuko duen mehatxu nagusienetako bat izango denaren zantzuak agerikoak dira.

Iraultza demokratikoan oinarritutako emantzipazio prozesu berrien agerpenarekin, intsurrekzio armatuan eta negoziazioan oinarritutako estrategien agorpena nabarmena zen dagoeneko latinoamerikan XX. mendearen amaieran. Kuba eta EEBB-en arteko akordioak batetik, eta FARC eta koloniar gobernuaren arteko akordioak bestetik, aro historiko horren amaiera sinbolikoa dira. Zentzu berean, Tamil tigreen porrota (2009) negoziazio prozesuen aroaren amaieraren mugari izan zen, Palestina eta Sahara mendebaldeko prozesuek ONUren Asanbladak aitortutako legalitate internazionala gauzatzeko agertzen duten ezintasunak berretsia. Kurdistangoa da, bere berezitasunekin, paradigma horren koordenadatan mantentzen den gatazka bakarra, zonaldean potentzia izateko nahian dabiltzan lau estatutan banatuta egotearen handicaparekin. Aldebikotasun saiakerak zein aldebakarreko prozesua garatzeko baldintzak sortu nahiak, PKK su-etenera bultzatu dute azken boladan.

Bestalde, 1998an, Venezuelen, neoliberalismoaren oldarraldiari aurre eginez zabaldu zen zikloak ere agorpen zantzu nabarmenak adierazten ditu gaur egun. Latinoamerikan garatu diren eredu post-neoliberalen artean desberdintasunak agerikoak ziren aspalditik. Venezuela, Bolivia eta Ekuadorrek, prozesu eratzailen zein XXI. Mendeko Sozialismoa deitu denaren baitako proposamenen bidez, estadio neoliberal gairatzeko bokazioa agertu dutela esan daiteke. Bestalde, neoliberalismoaren eskemak erauzi gabe aberastasunaren banaketan ahalegindu

diren esperientziak ere izan dira. Antzematen den agorpenak batzuei zein besteei eragiten diela dirudi, Argentina eta Venezuelako emaitza elektoralek eta Brasil eta Ekuadorren sumatzen diren bestelako zantzuek adierazten dutenez.

Europar erreferentzia politikoa eskumaren aldera ari da erortzen nabarmen: Hungaria eta Polonia... baina baita Europar Batasun osoan. Europako ezkerak ez du asmatu egoera bere onerako erabiltzen; ez du behar bezala konektatu gizartearen gehiengoarekin eta bidean, gainera, sozialdemokrazia eskuinera joan da nabarmen, eskuinak eta botere ekonomiko eta finantzarioek diseinatutako austeritate politikak babestuz eta, horiekin batera, europar integrazioaren eredu honetan inoiz ezagutu diren murrizketa sozialik gogorrenei bide emanez.

2.1.1. Europa

Ezgaitezentronpatu, Europar Batasuna ez da proiektu ekonomiko soil bat. Eredu ekonomiko neoliberal, patriarkal eta ez demokratiko honen atzean, gizarte eredu oso zehatza eta atzerakoia inposatu nahi duen erabaki politiko multzo zabal bat dago. Aipaturiko borroka ideologikoa (instituzionala, kulturala, mediatikoa...) ez dago diseinatuta boterea lortzeko bakarrik, inperialismoaren aurkako edozein egiazko alternatiba politiko oztopatzeko, ezinezko bihurtzeko baizik.

Eredu neoliberal horren hainbat ezaugarri aipa ditzakegu, Europar Batasunaren egungo egoerara egokituta:

- Inboluzio demokratikoa: Goi mailako tresna eta presio taldeen bidez ematen ari da (Troika, Europako Banku Zentrala, etb.), aginte erreala Alemaniak eta beste gutxi batzuek dutelarik.
- Austeritatea: Greziako desastrearen konstatazioak –Syrizaren garaipena baino askoz lehenago eman zena– ez zuen murrizketen politikaren amaiera ekarri, aditu eta Ekonomiako Nobel sari guztiek hori eskatu arren. Troiak zuzenean inposatzen ez dituen toki askotan ere murrizketak aplikatu/aplikatzen dira. Europar dagoen haustura soziala ez da inoiz hain handia izan bigarren gerraz geroztik. Horregatik, inoiz baino nabarmenago, borroka soziala lehentasuna da, justizia sozialaren aldeko borroka lehentasuna da ezkerrentzat. Inbertsio eta gastu publikoaren desagerpenak, zerbitzu sozialen eta publikoen deuseztatzeak, ez du gutxiagorik eskatzen.
- Emakumeen eskubideak. Europar borroka historikoen ondorioz lortutako emakumeen eskubideetan atzera pauso bat eman da, bizi baldintzetan ez ezik, espazioen galeran eta inboluzio ideologiko batean; eskubide sexual eta erreproduktiboetan, gorputzen kontrolerako mekanismoak, lesbianen bikoteen eskubideetan, estereotipo eta rol tradizionalen berrindartze bat eman da besteak beste.
- Lan erreforma: Europar Batasuneko gehiengo kontserbadorea lan erreforma berri bat bultzatzen-diseinatzen ari da; egun ezagutzen eta pairatzen ditugun ezaugarri kezkarrienetan sakontzea du helburu.
- Mugen itxiera: Kanpoko mugenak batez ere, baina baita estatu kideen artean dauden “barne” mugenak ere. Errefuxiatuen etorrera aitzakitzat hartuta.

- Sekuritatea: Errefuxiatuen auziari eta faktore islamistari lotuta, eskubideen eta askatasunen murrizketen areagotzea, muturreko eskuinaren gozamenerako. “Gu” eta “Besteak”, hori da jarrera honekin zabaltzen ari den mezu arriskutsua, mezu xenofobo eta arrazista. Faxismoaren aurkako borroka erabat beharrezkoa da berriro.

Ezker Abertzaleak –eta EH Bilduk, horretan posizio ezberdinak egon daitezkeelako– europar integrazioari buruzko eztabaida sakona egin beharko du, jakina. Bitartean, komenigarria izan daiteke terminologia eta posizioak zaintzea. Horregatik, eta baita konbentzimenduagatik ere, ezkerrearen gehiengoak esparru eurokritikoan kokatzen du bere burua, beste Europa baten alde borrokatuz; Europa sozialaren alde, berdintasunaren alde, justizia sozialaren alde, feminismoaren alde eta ekologiaren alde, pertsona guztien eskubideak defendatuz, pertsonen eta herrien eskubide politikoak eta zibilak lehen planoan jarriz, eta jarrera faxista guztien aurka altxatuz. Egia da, dena dela, ezkerrean ere sortu dela mugimendurik, B Planean oinarritutako diskurtsoarekin, alegia, eurotik atera ahal izateko bideak imajinatuz. Eztabaida ez da atzo goizekoa, jakina, baina Grezian gertatutakoak hauspoa eman dio.

Ez dira, dena dela, Grezia eta errefuxiatuak 2015eko gai bakarrak izan Europako politikagintzan. Burujabetza prozesu berriak –Eskozia, Katalunia– eta hauei jarri zaizkien oztopoak eztabaida politikoaren erdigunean egon dira. Edozein kasutan, Europar Batasunak ez du protokolo demokratikorik barne handitzei aurre egiteko edo nazioen gehiengo nahiak eta erabakiak bideratzeko.

Burujabetza ariketa demokratikoak tarteko baina, aldi berean, OTANen esku-hartze zuzen edo zeharkakoak baldintzatuta, Europaren mugek ezbaian jarraitu dute (Montenegro, Kosovo). Bestalde, Errusiak, *de facto* zenbait independentzia prozesuri babesa eman die: Abjasia eta Osetia Kaukasoren hegoaldean, nazioarteko legedian linboan zeuden Transnitria (Moldavia) eta Srpska-ko errepublika (Bosnia), Ukrainiako gatazkaren erdigunean Krimea, edota Donetsk eta Lugansk-ko errepublikak.

Hala ere, legediak onartutako erabateko burujabetzaren bidea Feroe uharteek eta Groenlandiak ireki zuten, bi lurralde horietako bakoitzak Danimarkako Erresumarekin zituen harremanen negoziazioen baitan. Feroe uharteek 1948ko estatusa eguneratu zuten 2005ean sinatu zen akordio berri batean, zeinean bi aldeek berdintzat aitortzen duten elkar. Groenlandiak, berriz, autodeterminazio eskubidea jasotzen zuen autonomia estatutu bat bozkatu zuen 2008an, etorkizuneko independentziari ateak irekiz. Edozein kasutan, Danimarka ez da Espainia, eta Groenlandia eta Feroe uharteak ez dira demografikoki zein ekonomikoki Euskal Herria eta Kataluniarekin konparagarriak.

Europar Batasunari dagokionez, eskoziarrei (SNP, 2007) eta flandiarrei (N-VA Nieuw-Vlaamse Alliantie, 2010) esker mugimendu independentistek jauzia eman zuten aurreko hamarkadan, gehiengo osotik urrun gelditu arren lehen indar bihurtu baitziren bozetan. Batzuk zein besteek Quebec-eko ereduaren erreleboa jaso dute, nork bere errealtatera egokituz. 2011an SNP-k gehiengo osoz irabazi zituen bozak eta, emandako hitza betez eta Britainia Handiaren kontrako jarrera bortitzik gabe, 2014ko erreferenduma sustatu zuen. Flandrian, 2014an, belgiar estatua minimora murriztu eta konfederazioaren bidean urratsak ematea bilatzen zuen programarekin aurkeztu zen N-VA hauteskundeetara, jakitun %30eko babes elektoralak ez ziola erreferendum bati aurre egitea ahalbidetzen.

Azkenik, Espainiak alde bikotasun aukerak zapuztu ondoren, Kataluniak burujabetza prozesua alde bakoitasunaren aldeko hautu argira eraman du. Eskozia eta Kataluniako kasuek, batak eta besteak, erabakitze eskubidearen aldarria Europar Batasunaren agenda politikoan jarri dute. Ondorioz, independentziak indarra hartu du proiektu politiko gisa, eta baldintza berriak ireki dira gure prozesu independentistak pausu berriak eman ahal ditzan.

Brexit, Britainia Handiaren irtetzea, etorkizun hurbilean kontuan hartu beharrekoa da. Ez Europar Batasuna bera alda dezakeelako, baizik eta datorren urteko erreferendumak eragin zuzena izango duelako Irlandan, Eskozian eta Galesen. Irlandako Sinn Feinek eta Eskoziako SNPk esana dute dagoeneko kontsulta propioak bultzatu edo exijituko dituztela.

2.1.2. Estatu frantsesa

Egiturazko aldaketak ekartzen dizkion erreforma prozesuan murgilduta dago estatu frantziarra, lurralde berrantolaketa barne. Frantziak bizi duen atzeraldi ekonomikoa zein bere egitura produktiboak dituen arazoak, enpresa handiekiko eta kanpo multinazionaliekiko dependentziarena, politika liberalekin konpondu nahi du. Ez da berria. Alta, aurreko erasoekin alderatuta, Europatik inposatzen den austeritate politika gauzatu behar denaren aitzakian, II. Mundu Gerra ostean eraikitako Estatu Sozialaren zutabeak eraldatzea erabaki du Hollandek zein Valls-ek gidatzen duten PSko Gobernuak.

Egoera orokor honetan, mapa politikoan mugimendu nabarmenak daude azken aldian. Marine Le Penen Fronte Nazionalak markatu du, oso nabarmen, estatu frantsesaren agenda politikoa. Hollandek patriotismoaren aldeko apustua egin du orain, horrek iritzi-azterketetan eta urnetan abantailaren bat emango diola pentsatuz. Baina eskuin muturra elikatzeke modurik onena izan da beti bere diskurtsoa kopiatzea. Eta horixe ari dira egiten, segurtasun kontuetan, errefuxiatuen kontuetan, etb.

Antolaketa instituzionalari dagokionean, Estatuaren birzentralizazio prozesuak azkartze bat ezagutu du azken urteetan. Prozesu hau hiru norabideetan gauzatu da. Alde batetik, erregioen maparen eraldaketa, 24 eskualdeetatik 11 makro-eskualdeak konfiguratzeko urratsa eman da; Ipar Euskal Herria bera, lehengo Akitania, Poitou-Charentes, eta Limousin erregioak bateratzen dituen 6 milioi biztanleetako makro-eskualde berri batean kokatua delarik. Bestetik, Departamenduen kompetentzien murrizketa. Eta azkenik, herri-elkargoen (udal mankomunitateen) eremuen zabaltzea, eta eskumenen indartzea, helburu argi batekin: estatu frantsesean dauden 6.000 herriko-etxeak (tartean, udal txiki andana) integrazio eta bateratze dinamika batean sartzea. Azpimarratu behar da, birzentralizazio prozesuaren azkartzeak, aitortza politikoaren aldeko giroa indartu duela nazioen lurraldeetan: Britainian, Okzitanian, Alsazian, baina bereziki Ipar Euskal Herrian, eta Korsikan estatus politikoen inguruko eztabaidak bultzada nabarmena ezagutu du.

2014ko ekainean FLNC erakunde armatuak, bere ekintzen behin-betiko bukaera iragarri du. Aldebakarreko pausu hori korsikako Lurralde Kolektibitatean lortutako oinarritzko akordioaren eta erabakien ondorekin etorri da. Izan ere, azken urteetan ondoko hiru elementuen inguruan Lurralde Kolektibitateak neurri eta aldarrikapen zehatz batzuk ebatzi ditu gehiengo zabal batez, gaurko frantses konstituzioan ez direla kabitzen jakinez. Lehena: Autonomi estatus baten beharra, korsikar popularen aitortzan oinarritua, fiskalitate sistema berezko batez hornitua. Bigarrena:

kortsikar hizkuntzaren ofizialtasuna. Hirugarrena: egoiliar estatusa, lurra-etxebizitzaren arloa arautzeko balioko lukeena, norbanakoen jabetza eskubidea eta trantsakzio ahalmena Kortsikan bizi proiektu baten (lan eta bizi) antolatzeari baldintzatuz. 2014ko ekainean FLNC-k hartu erabakia Lurralde Kolektibitatean adostu eta publikoki ebatzi den ibilbide orriari bidea irekitzeko urrats garrantzitsu bezala ulertu da eragile guztien partetik; ibilbide orri honi gai inportante bat gehitu behar zaiolarik orain: preso guztien askatzea. Dinamika honek bere fruituak ekarri ditu azken hauteskundeetan, independentistek eta autonomistek lortutako koalizioa garaile atera baita.

2.1.3 Estatu espainola

Estatu espainolak krisi anitza pairatzen duela esan ohi dugu. Ekonomikoa, soziala, instituzionala eta territoriala deitutakoa, eta horiek guztiek elkarri eragiten diete. Duela 7-8 urte eztanda egindako nazioarteko krisi finantzarioak modu berezian eta berezitan kolpatu zuen estatu espainola, eta horrek lehertarazi egin zituen urteotan pilatutako arazoak –adreiluan oinarritutako produkzio eredua, adibidez– eta ipurtageri utzi zituen gabezi estrukturalak –Autonomien Estatuaren eredua bera, esterako–.

Une honetan, hazkunde ekonomikoa saltzen hasi dira baina lan partziala eta ezegonkorra gailendu dira. Lan ordu kopuruak ez dira hazi, jende gehiagoren artean banatu dira, eta lan baldintzak, soldata barne, okertu egin dira. Horrela, fenomeno berri bat agertu da: lan izateak ez du txiro izatetik ihes egitea bermatzen. Hortaz gain, zaintza krisia deiturikoa areagotu da, emakume asko lan produktibotik kanporatuz, edo eta erreproduktiboaren gain karga hartuz.

Aberastasuna pilatzen segitu dute botere finantzarioek eta oligarkikoeak, eta horrela aberatsen eta pobreen arteko tartea handitu baino ez da egin. Aldi berean, krisiaren aitzakiarekin, zerbitzu sozialak eta alor publikoa murriztu egin dute, modu honetan, berriro ere, ahulenak kaltetuz –gazteak, emakumeak eta etorkinak kasu–, banketxeen gehiegikeriek sortutako zuloak denon diruarekin betetzen diren bitartean. Banketxeak salbatzeko Europak egindako erreskateak eta handik jarritako baldintzak aitzakia izan dira herri sektoreei eta langileei estualdi berriak inposatzeko. Krisi ekonomikoak –edo horren erabilpenak– krisi soziala areagotu du, endemiko bilakatu arte. Honek guztiak Hego Euskal Herriaren egoerari begira ere balio du, aldeak alde.

Horregatik are lazgarriagoa izan da herritarrentzat ustelkeria botere guneetan nola dagoen txertatuta ikustea. Sistema osoaren sinesgarritasuna kaltetu du, Lehen aldiz, 78ko erregimenaren zilegitasuna kolokan egon da espainiar herritarren begietara.

Krisi ekonomikoaren eta ustelkeriaren ondoan estatu ereduaren eztabaida piztu da. Garestia delako. Euskal Herria, Katalunia eta Galizako berezitasuna lausotzearen “café para todos” formula asmatu zuten eta orain ez dela jasangarria diote askok. Birzentralizazio gogoak piztu dira, bide batez aipatu berezitasun nazionalak kaltetzeko erabili ahal dituztenak.

Testuinguru horretan, are garbiago agertzen da Katalunian abiarazitako prozesu independentistaren nondik-norakoa. Hango estatutua berritzeko ahaleginean, Estatuak eragindako sekulako frustraziotik independentziak ekarritako itxaropenera, prozesu bizi-bizi bat ikusi dugu, herriak hauspotua eta alderdien posizioak aldatu dituen, Parlament-ean prozesua bururaino eramateko agindua duen gehiengo independentista lortu arte.

Bien bitartean, Estatuko Gobernuak nola osatuko den edo berriro hauteskundeak izango ote diren ikusteko dago. Zenbait kontu *impasse* egoeran utzi ditu egoera horrek. Aspalditik entzun ohi da konstituzioaren erreforma bati ekin beharko diotela hurrengo legealdian, krisi multiple horrek hainbeste zulo agerian utzi ostean. Sakoneko erreformaren aukera urtuz joan da, are gehiago estaturik gabeko nazioen beharrei erantzuteko. Erabakitze eskubidea inoiz baino ozenago entzun da, haatik, Kataluniak eragindako krisia dela-eta, baina ez dirudi Estatutik aterabide demokratikorik onartzeko borondaterik dagoenik.

2.2 Euskal Herria

2.2.1. Egun bizi dugun Euskal Herriaz

Irakurketaren haria ez etetearren atal hau A eranskinean txertatu da. Egun bizi dugun Euskal Herriaren oinarritzko ezaugarri batzuk aztertzen dira bertan. Konkretuki honako hauek:

- Lurralde antolaketa
- Balore sozialen ordezkapena
- Ingurugiroa eta ondare naturala
- Demografia eta egitura soziala
- Egitura ekonomiko eta produktiboa
- Hizkuntz ordezkapena
- Asimilazio kulturala eta praxis zentrifugoa

2.2.2. Azken urteotako norabideaz

Zutik Euskal Herriak ekarritako ziklo aldaketari buruz egindako balantzearen puntuan nahiko elementu eman ditugunez, labur antzera egingo dugu abagunearen azterketa osatzeko Euskal Herriari buruzko puntu hau. Laburbilduz, gure herria bidegurutze batean dagoela esan daiteke, kanpo eta barne faktoreak tarteko. Hurrengo urteotan prozesu independentistaren mesedetan argitzen saiatu beharko dugun bidegurutzea.

Bai Estatu frantsesean bai Estatu espainolean egiten edo egingo diren erreformek eragina izango dute, eta gainera tempusak ez dira berdinak batean zein bestean. Ipar Euskal Herriari dagokionez, Herri Elkargoa indarrean jartzearekin, 20 urteotako ziklo bat ixten da -1994an hasitakoa, "Pays Basque 2010" ekimenarekin-. Hortik aitzina, beste ziklo bat zabaltzen zaigu, ahalik eta laburrena izan beharko dena, baina, halere, 15-20 urtez luzatu daitekeena. Gogoeta berezia eskatuko du horrek.

Estatu espainolean ere erreformaren aukera iragartzen da hurrengo legealdirako, baina gurean aspaldi dugu ate joka eztabaida, nahiz eta azkenaldian geldialdian sartu den, besteak beste,

bakarren batzuek Gasteizko Parlamentuan itota utzi nahi izan dutelako eta guk geuk lehen lerrora ekartzen jakin izan ez dugulako. Fenomeno xeble bat ere gertatu da: birzentralizazio mehatxuek EAeko Kontzertua eta Nafarroako Hitzarmena jo-puntu jarri dituztenez eta PNVk Kataluniako prozesutik distantzia hartu nahi izan duenez, hemengo bide autonomikoaren nolabaiteko aldarrikapena egin dute jeltokideek –«nahiko lukete katalanek Kontzertuaren sistema izatea»-. Agortutako markoaren ustezko bertuteak goresten berriro ere PNV azaldu zaigu, eta autogobernuan sakontzeko proposamena aurten izango diren hauteskundeetan amutzat erabiliko du.

Nafarroan ezin izan dute horrelakorik egin UPNkoek, erregimena gainbehera etorri baita ustelkeriaren pipiak janda eta herri protestak bultzatuta. Oinarri sozialeko aldaketa politikoa izan da. Ozta-ozta iritsi da, ordea, eta horrek halako prebentzio bat sortu du, normala denez, ur handitan sartzeko. Erasoak sekulakoak izango diren arren, aldaketa horretan aurrera egiteko eta errotzeko legealdia dago orain aurretik. EAEn ere legealdi berria izango da aurki, eta, beharbada, bi eremuek elkarri begira jartzeko parada ere izango da, 2019-2020ko hauteskunde foraletan eta autonomikoetan salto garrantzitsuak emateko zerumugarekin. Abian prozesu honen ondorioak ikuspuntu horrekin ere jarri behar ditugu, gutxieneko perspektibarekin lerro eta proposamen egokiak jendarteratzeko eta nahikoa herri aktibazio lortzeko, gerora azalduko dugun estrategiaren logikan.

Ziklo aldaketa gatazka –ondorioei begira– gainditzeko ardatzarekin abiarazi zen, eta ez da prozesu politikoak eskatzen zuen norabidea eman, baldintza objektiboak inoiz baino hobeak izanda ere. Beharbada, begirada pixka bat altxatu beharko genuke abagune politikoaz eta historikoaz behar bezala jabetzeko, uneko estatusnek ito ez gaitzaten.

Askapen prozesuaren ikuspuntutik, trantsizioan gaude, lurralde zatiketan oinarritutako eredu autonomiko batetik onarpen nazionala eta botere politiko burujabea egituratzeko egoera berrietarakoa. Igarobide hori Lizarra-Garazin hasi zen, hantxe egiaztatu baitzen eredu autonomikoaren balio gabetasuna. Beste gauza bat da igarobide hori kudeatzeko egindako hutsune eta akatsak, bai Ezker Abertzaleak, bai beste eragile politiko batzuek. Lizarra-Garazi, Ibarretxe Plana eta Loiolako elkarrizketak galdutako aukerak izan ziren, eta horrek ajea utzi du igarobide politiko hau konfidantzarekin egiteko.

Ziklo aldaketak berreskuratu eta berriro ditu horretarako oinarriak, nahiz eta une honetan beheraldi batean sartu garen. Independentziaren eta aldaketa sozialaren aldeko estrategia berrartzeko baldintzak izan badira, alabaina, bidegurutzetik onik irteteko eta askapen prozesuan urrats berriak egiteko.

3. EZKER ABERTZALEAREN PROIEKTU POLITIKOA

Euskal Herria independente, sozialista, euskalduna eta feminista, horiexek dira Ezker Abertzalearen helburu estrategikoak. Hori horrela, txosten honetan gure proiektu politikoaren formulazio konpaktuago bat proposatzen da, prozesu independentistaren garapenak, irekitzen den fase honetan, hala eskatzen duela iritzita.

Oinarri ideologiko sendoak jarri zituen Ezker Abertzaleak askapen nazionala eta soziala batu zituenean, txanpon beraren bi aldeak direla adierazi zuenean. Baieztapen hori, Ezker Abertzalearen historian izan den ekarpen ideologiko handienetakoa izan zen. Sintesi hau, gaur arte iritsi den mugimendu soziopolitiko baten oinarri ideologikoa izan da, baita herri sektore ugari bere egin duen borroka politikorako eskaintza ere.

Ezker Abertzalea deitu den komunitatearen zoru ideologikoa ezarri zuen ekarpen hark, ikuspegi ideologiko desberdinei ipar partekatu bat emanez. Orduz geroztik gure proiektu politikoa independentzia eta sozialismoa dela esan dugu, euskalduntasuna lotuz lehen unetik eta feminismoa gehituz ondoren. Feminismoaren gehiketa honen atzean sexu-genero gatazkaren aitortza politikoa dago. Ezker Abertzaleak bere oinarri ideologikoetan hiru zapalkuntzen arteko intersektionalitatea teorizatuta bazuen ere –nazionala, soziala, patriarkala–, oraingoan maila berean jartzen dira hiru gatazkak. Proiektu politikoaren oinarri ideologiko hauek helburu ez ezik, praktika politikoa zeharkatu eta tarteko aurrerabideak markatu behar dituen prozesu askatzailearen mamia eta jarduera dira.

Ezker Abertzaleak, bere ibilbidean zehar, gure herrian eman diren aldaketa sozial eta politikoen eraginez batzuetan eta munduko prozesu politiko-ideologikoen eraginez besteetan, bere oinarriko teoria politikoa –teoria abertzale iraultzailea dei dezakeguna– dialektikoki eguneratzeko gaitasuna izan du. Eguneratze hori –batzuetan ia konturatu gabe, besteetan eztabaida luzeen ondorioz– sorkuntza teorikoa ortodoxiatik aldentzeko intuizioz egin du Ezker Abertzaleak; iturri anitzetatik edanez, garai bakoitzeko baldintzetara egokitzen saiatuz, eta betiere herriaren arnasa bilatuz. Ezker Abertzalearen kultura politikoaren bereizgarrietako bat izan baita euskal gizarte anitzarekin konektatzen jakitea eta aldarrikapen sozial eta nazionalekin bat egitea. Horixe da hain zuzen ere, fase politiko honetan askapen prozesuak modu erabakigarrian aurrera egin dezan aurrez aurre dugun erronka

Berrikuntza eta eguneratzea beharrezkoa izanik ere, kontutan izan behar dugu –hamarkada askotxo pasa diren arren, testuinguru historiko ezberdinak igaro ditugun arren– sintesi horrek inoiz baino gaurkotasan handiagoa duela. Neoliberalismo patriarkala jaun eta jabe den mundu globalizatuan, sozialdemokraziak porrot egin eta estatu liberalak merkatu finantzarioen morroi diren garaiotan, proiektu independentistak gizarte emantzipaziorako itxaropen bilakatu dira Europan.

Izan ere, kapitalismoaren krisi sistemikoa bizi dugu, bizitza bera arriskuan jartzeko ahalmena izan dezakeen krisi-hari ugariaren metaketa. Itxura guztien arabera bizitzaren eta kapitalaren arteko talkak ezaugarrituko du XXI. mende hau. Testuinguru global horretan burujabetzaren aldarrikapenak izaera eraldatzailea hartu du: herritarren bizitza duin, iraunkor eta demokratikoa bermatzeko estatu egitura propioen beharra inoiz baino agerikoagoa da, eta zentzu horretan, estatu propioaren eraikuntza prozesua jendartearen emantzipaziorako egitasmo bilakatu da. Gaurko testuinguru historikoan ez dago prozesu independentista baino egitasmo herritar antioligarkikoagorik Europa zabalean.

Europa/Espainia/Frantsiako oligarkien politikek kaltetutako klase eta sektore sozial desberdinen arteko aliantza zabalak beharrezkoak dira askapen prozesuaren fase honetan –industriako soldatapekoak, zerbitzu publikoetako langileak, enpresari txikiak, prekariatua, etxeko langileak, kooperatibistak, nekazariak, autonomoak, intelektualak, pentsiodunak...–. Egungo fase

eta testuinguru historikoan, proiektu independentista eraldatzailean sakontzea -nahiz eta helburu estrategiko guztiak oraindik ez eskuratu- egin daitekeen ekintzarik iraultzaileena dela. Arestian aipatu bezala, hemen eta orain, ez baitago proiektu independentista baino egitasmo antioligarikiko sendoagorik, intrintsekoki eraldaketa sozialaren eta langileriaren, emakumeen zein herri sektoreen interesen aldekoa delako. Estatu independente bat eraikitzeke egitasmoa, estatu desberdin bat sortzeko egitasmoa da era berean, bestelako botere harreman batzuk eraikitzekeoa.

Horregatik mugimendu independentista zabal eta hegemoniko bat sortzen lagundu nahi dugu. Batetik, aurrez esan bezala, gizarte eraldaketan pausu sendoak emateko bidea delako, eta bestetik, mugimendu independentista zabal horrek Euskal Estatuia -bere muga guztiekin- eskuratzek, Ezker Abertzaleari bere proiektu politikoa osoki gauzatzeko aukera berriak zabalduko lizkiokeelako eta sozialismorako -berritua eta Euskal Herrira egokitua, bizitzaren esparru guztietan demokrazia erradikalizatzearen sinonimo bihurtuta- bidea irekiko liokeelako. Eraikuntza nazionalean eta eraldaketa sozialean sakontzen jarraitzeko bitartekoez hornitutako bidea.

Nolako estatugintza egin halako estatuia ariko gara eraikitzen. Horregatik estatu ereduaren hainbat ezaugarri eztabaidagai jartzeko tenorea ere iritsi da, beti ere garaian garaiko eztabaidak eman behar direla aiantzi gabe, geure buruak eztabaida hutsaletan katramilatu gabe. Estatuaren konfigurazio politikoiari dagokionez, Ezker Abertzalearen imaginario kolektiboan estatu jakobinoa egon da. XXI. mendeko paradigma emantzipatzaileak aldiz bestelako estatu ereduak ari dira proposatzen -deszentralizatuak, komunitatean sustraituak, etabar-. Pare pare dugu euskal komunitateari estatu eredu demokratiko eta berritzaile bat eskaintzeko aukera, non lurralde desberdinen arteko artikulazioak behetik gorako norantzari lehentasuna emango dion -udalei, eskualdeei zein egun bizi ditugun eremu politikoi-administratiboai dagokienez-, izaera konfederala eredutzat hartuz.

Laburbilduz, **Estrategia Independentista Eraldatzailea** da gurea, eta **Euskal Sozialismoa** du helburu, beronek feminismoaren ekarpen ezinbestekoa bere baitan bilduko duelarik funtsezko ardatz gisa. Era berean, euskaldun eleanitzez osatutako Euskal Herri euskalduna eraikitzeke apustua egiten dugu kapitalismo uniformizatzailearen aurrean.

Euskal Estatuia ez da helburu absolutu bat beraz, gizarte eraldaketarako tresna baizik, helburu estrategiko gorenaren zerbitzura dagoena: Euskal Sozialismoa, euskal demokraziaren erradikalizatzea bizitzaren esparru guztietan. Euskal Sozialismoa nazio-, klase-, genero-zapalkuntza oro ezabatzerako bidea hauspotzeko maila goreneko helburua da, ekoizpen bitartekoen jabego pribatuaren nagusitasuna eta eskulanaren esplotazioa/zapalkuntza errotik erauztera datorrena. Ondorioz, **euskal estatugintza** prozesu emantzipatzailea da, gizarte eraldaketarako egitasmoa, Euskal Sozialismorako **trantsizio prozesua**.

Formulazio honekin bizi dugun testuinguru historiko honetan gure proiektu politikoi berrirakurtzeko saiakera egiten dugu, XXI. mendeko baldintza historikoi betaurrekoekin interpretatzen saiatuz:

- Euskal Sozialismoa dugu helburu, gure herriaren idiosinkrasiara eta ezaugarri sozial, politikoi eta kultural propioetara egokitzen den sozialismoa. Are gehiago, Euskal Herriak

mendeetan zehar berezkoa izan duen ehundura komunitarioa, auto-antolakuntzarako joera eta bultzada asoziatiboa oinarri izango duen sozialismo eredu bultzatzen dugu.

- XXI. mendeko sozialismoaren parametroetan kokatzen gara, eta beraz, funtsean, demokraziaren erradikalizazio absolututzat dakusagu sozialismoa.
- Eredu kapitalistarekiko alternatiba integrala da Euskal Sozialismoa: Gutxi batzuen etekinen metatzearen ordez, aberastasunaren banaketa ekitatiboa; kapitalaren diktadura ekonomikoaren ordez, komunitatearen zerbitzurako ehun ekonomikoa; ingurunearen ustiaketa basatiaren ordez, garapen iraunkorra; transnazionalen nagusitasunaren ordez, herrien burujabetza; gerra etengabeak sortzen dituen inperialismoaren ordez, elkartasun internazionalista eta herrien arteko errespetuan oinarritutako bakea.
- Euskal Sozialismoak oinarri oinarrian du feminismoak sistema kapitalista patriarkalaren botere harremanak iraultzeko egiten duen ekarpena. Jendarte eredu patriarkala gaindituz eta botere harremanak irauliz, bizitza erdigunean duen eta emakume eta gizonen arteko harreman berrietan oinarrituko den jendartea dugu helburu. Egungo jendartearen eraldaketa feminista bultzatuko dugu.
- Euskararen eta euskal kulturaren aldeko borroka ere gizarte emantzipazioaren parametroetan ulertzen dugu. Izan ere, kultura minorizatu baten aldeko jarrera joera menperatzaileen kontrako insubordinazio posizio bat da; gure komunitateak euskaraz bizitzeko duen eskubidea baita hizkuntz gatazkaren erdigunean dagoena, gizarte justiziarri loturiko afera bat.
- Dialektikoki eraikitzen joango da Euskal Sozialismoa, prozesu sozialetan dimentsio berriak esploratuz eta proposamen teoriko eta praktikoko garatuagoetarantz aurrera eginez. Ezker Abertzaleak indartsu sentitu behar du datozen hamarkadetan izango ditugun erronken aurrean, gure herrian, haren kulturari eta forma sozialei itsatsita egongo den Euskal Sozialismo bat egituratzeko, bizitzaren esparru guztien demokratizazio erradikala ekarriko duen prozesuan saiatzeko.
- Esan dugunez, independentismoa jendarte-emantzipazio egitasmo bat da, herri segmentu zabalen ahalduntze eta mobilizazio prozesu indartsu bat halaberrez; gizartearen politizazio prozesu orokor bat, hots, **iraultza demokratiko** bat.
- Finean, **Prozesu Independentista Eraldatzailea Euskal Sozialismorako trantsizio prozesua da; hots, prozesu demokratiko iraultzaile bat.**

Bukatzeko, gure proiektu politikoan dimentsio indibidualak duen garrantziaz jardungo gara. Norbanakook, pertsonok osatzen dugu Ezker Abertzalea, eta ondorioz bere proiektu politikoaren garapen prozesua. Euskal Sozialismoaren balioak eguneroko praktika bihurtu behar ditugu, eta balio horietan oinarritutako bizi ereduak gutako bakoitzaren hautu pertsonala izan behar du, egitasmo kolektiboa elikatuz. Praktika emantzipatzaile kolektiboak egingo baikaitu pertsona aske.

4. NORA ETA NOLA GOAZ, ESTRATEGIAREN GAURKOTZEA: HAUTABIDE INDEPENDENTISTA

Estatuek ez dute euskal herritarren gogo eta beharrak asebeteko dituen eskaintza politikorik. Aitzitik, ukazio, inposizio eta asimilazio asmoekin darraite, eta zenbaitetan birzentralizazio nahiekin ere bai. Aldi berean, proiektu politiko guztiak egingarritzat onartuko lituzkeen marko demokratiko bat adosteko aukerarik ez da antzeman ere egiten. Ez gaur-gaurkoz, bederen. Estatuak ez dute nahiko heldutasun demokratikorik halako konponbide oso eta borobilik adosteko. Ahulezia estrategikoak jota, halako ariketen beldur dira.

Horregatik, Ezker Abertzaleak Euskal Herrian independentziaren norabidea indartu behar dela uste du, herritarren artean ideia hau hegemoniko bilakatuz: soilik aldebakarreko prozesu soberanista batek ahalbidetuko du egiazko agertoki demokratikoak erdiestea. **Soilik aldebakarreko prozesu soberanista batek berma dezake euskal nortasuna diskriminaziorik eta eskubide murrizketarik gabe garatzea. Soilik halako prozesu batek ahalbidetu dezake aldaketa soziala gauzatzen joatea eta eskubide sozialak bermatzea, langile eta herri sektoreen ongizatea eta ahalduak lehenestea. Halako prozesu batek bakarrik sortu ahalko luke nahikoa indar harreman noizbait benetako konponbideak adosteko eta onartuak izateko.**

Beraz, mugimendu independentista zabal, anitz, sendo eta eraginkor bat sortzea da erronka, hegemonia ideologiko independentista hori azken bururaino eramateko gai izango den mugimendua, jauziak emateko baldintzak sortuko dituen eta erasoei erantzuteko kapaz izango dena. Izatekotan, horrek soilik baldintzatu edo indargabetu dezake estatuen itxikeria eta mugi ditzake bertako indar politiko eta eragileen posizioak.

Horri deritzogu prozesuaren **hautabide independentista**¹. Oinarrizko kontzeptua da estrategia gaurkutzeko. Hautatze bat delako, askorena eta molde askotarikoa. Hautua eta hautuak, beraz. Ahalegin askoren emaitza, bidea eta bideak, beraz. Eta funtsezkoena, herri oso baten antolatze eta aktibazio eraginkorra eskatuko diguna. Ekarpen ugariaren emaitzaz, metaketaz, hautuaz burutuko dena, independentzia eraikitze eta eskuratzeko jauziak eman ahal izan ditzagun. Beti ere ukazioa eta zapalkuntzaren aurkako konfrontazio demokratikoa, eta beronek eskatzen duen herri aktibazioa ubide nagusia izanik, Euskal Herria herri azpiratua, zapaldua, zatikatua izan badelako oraindik ere.

¹Hautabide independentista eztabaidaren aurrekarietan eta txosten hau egiteko eskemetan erabilitako "dekantazio independentista"-ren ordezkaria da. "Dekantazio" hitzak gaztelaraz -decantación- hitzak duen adierako batean --en alde agertu/egin/jarri- erabili dugu, baina euskaraz ez litzateke hain zuzena, gureak fisikari lotutako adiera soilik baitu hiztegiaren, autore batzuek -gutxi- bestela erabili badute ere.

4.1. Eskaintza independentista birsortu

Independentziaren aro zerumuga ez da independentziaren aroa, independentziara iristeko aroa baizik. Honek esan nahi du independentzia dela aro honen erreferente nagusia, helburua, urteotako erresistentzia-biziraupen aroa gaudituta. Egia esan, erresistentzia eta alternatiben eraikuntza beti daude elkarlotuta, defentsiba eta ofentsiba beti elkarrekin doaz. Kontua neurria da, zein nagusitzen den harreman konplexu horretan. Urteetan erresistentzia eta defentsiba nagusitu dira Euskal Herrian –eta Ezker Abertzalean, jakina– biziraupena zelako gakoa, erasoan aurrean ez hiltzeko –herri-kultura gisa, mugimendu gisa, egitasmo gisa...-. Orain, erresistentzia eta joera/jarduera defentsiboak agortutzat eman gabe, egitasmo alternatiboaren eraikuntzak hartu behar du nagusitasuna. Euskal Herriaren zerumuga ez da heriotzari ihes egitea, bizitzeko era berri bat eraikitzea baizik, eta aro honen borrokaren ideia erregulatzaileria independentzia da.

Aro honen gakoa herritar gehienek interes eta gogoak independentziarekin lotzea da. Hau da, independentzia gehiengoaren asmoa bilakatzea, eta independentzia gauzatzeko estrategia emankorra marraztea eta gauzatzea. Independentziak herriaren gehiengoaren gura bihurtu behar du, eta ez soilik alderdi edo esparru ideologiko batena.

Independentziaren egitasmoak gehiengo sozial handiak lortzeko gai izan behar du. Ideien eta baloreen hegemonia lortu behar da, hegemonia kulturala/ideologikoa. Alderdien arteko lehia – interesak– gaudituta ahal izango duena eta, aldi berean, alderdien jokabide okerrak baldintzatuko dituen.

Horrenbestez, ohiko tradizio independentistatik baino harago iritsi behar du eskaintza independentistak. Eta horrek bi zentzutan ikuspuntua berritzea eskatzen digu Euskal Estatuaren aldeko iritzi garbia dugun ezkerreko independentistoi:

Atzera begira lehena. Bururaino eramateko prozesuaren fase honek indar metaketa independentista ahalik eta zabalena sortzea eskatzen badu, atzo arte ikuspuntu ezberdinak –zenbaitetan elkarren kontrakoak– izan dituzten sektoreak batu eta erakarri beharko dira horretara. Prozesu independentistaren garapena Ezker Abertzalearen historiaren garapen soiltzat jotzen badugu, gure ibilbide osoaren erabateko legitimazioa osagai ezinbestekotzat hartuz gainera, ez dugu arrakastarik izango. Ezker Abertzaleko guztiok independentziaren aldeko apustu honekin bat egin behar dugu, baina apustu honekin bat egiten duten guztiek ez dute ontzat eman behar gure ibilbidea.

Aurrera begirakoa da bigarren gogoeta. Sektore gehiago bildu behar badira, horrek eskaintza independentista gaurkotzea edo birsortzea eskatzen du, errelato independentista berri bat eraikitzea, Euskal Estatuaren aldeko hautua gero eta sektore gehiagorena izan dadin. Nazio izaeratik eratorritako arazoiez gain euskal herritarren beharrei erantzuna eman behar die eskaintza berrituak, behar materialei –lana, etxebizitza, elikadura, lurra, energia, babes soziala, hezkuntza, osasungintza...– zein aspirazio sozial konpartituei –parte-hartzea, parekidetasuna, askatasun demokratikoak, aniztasun kulturala, askatasun sexuala...-. Berdintasunak, demokraziak eta justizia sozialak eskaintza independentista berriaren ikurrak behar dute izan.

Norabide horretan, Euskal Herriko gizon eta emakumeon bizi eta lan baldintzetan zuzenean eragiten digun globalizazio ekonomiko eta kulturalari aurre egiteko goren mailako tresna dugu

Euskal Estatu. Aspaldi aldarrikatu genuen estatu baten beharra ere euskararen normalizazioa eskuratzeko. Egun, euskal estatu feminsta aldarrikatzen ari da patriarkatuaren zapalkuntza gainditzeko. Era berean, herritarron ongizatea eta eskubide sozialak bermatzeko, euskal estatuaren aldarria hedatzen doa gure artean. Azkenik, erabakiak “hemen” hartzea, “han” hartzea baino demokratikoagoa ere badela erakutsiz, euskal estatua herritarrak ahalduntzerako ere bermea ere badela agerikoa da. Dimentsio anitzak ditu herri eta herritarron burjabetzak, euskal estatua ez da guztiak asetzeko baliabide nahikoa baina bai ezinbestekoa. Dimentsio guzti horiek garatzea eta azalaraztean datza eskaintza independentista eraberritu baten benetako erronka.

Gainera, garai berria baino ezagutuko ez duten belaunaldiak etorriko direla kontuan hartu behar dugu, eta horiei eginiko eskaintza ezin daiteke atzera begirakoa izan. Horiek kontakizun berri bat egiten hasiko dira, eta independentismoak izan behar du kontakizun horren ardatza. Euskal herritar izateak eta berezko estatu bat izateak konexio naturala izan behar du horientzat. Independentziak erakargarria izan behar du haientzat, proposamen taktikoak gero eta instrumentalagoak bihurtu arte.

Proposamen berri hori eragile ezberdinen artean landu eta hezuramamitu beharko litzateke, eta bistan da EH Bilduk/EH Baik -burujabetzaren aldeko esparru politiko zabalena izanik gaur egun-ekarpen erabakigarria egin behar dutela hori dena taxutzeko. Aliantza horien baitan izango diren hausnarketetan eta erabakietan, gainerako bidaide guztiekin batera, parte hartuko dugu, baina, analisia eginez eta errespetu osoz, hauxe ondorioztatu dugu: independentziaren aldeko aliantza politiko eta elektoral nagusi gisa garatu beharreko horrek eskaintza berrituan parte hartu beharko du, bere formulazioa kaleratu beharko du.

4.2. Herrigintza ardatz

Prozesu Independentista Eraldatzailearen ardatza historikoki Nazio Eraikuntza deitu dugun estrategiaren -E egunaren zain egon gabe Euskal Herria gaurtik eraikitzen hasi- gaurkotzea izan da funtsean; beraz XXI. mendeko baldintzetara egokituz, espresio gorenaz eman eta estatugintzaren momentuan kokatuz. Beraz, jokaleku ezagunean ari gara, nahiz eta baldintza historiko berrietan. Proiektu politikoaren definizioan esan dugunez, prozesu antioligarrikoko herritar zabal bat antolatzeak aukera paregabea dugu aurrez aurre, jendarte eredu demokratikoago eta justuago baten eraikuntzarako urratsak barnebilduko dituen, eta gure proiektu politikoan sakontzen jarraitzeko estatu egiturak erdiestea ahalbidetuko diguna aldi berean.

Prozesu independentistak badu ubide nagusi bat: herri sektore zabalekin konpartituko dugun prozesu herritarra, euskal gizartearen sektore zabalei zuzendutako eskaintza soberanista; hots, Euskal Estatuaren eraikuntza prozesu metakorra -euskal estatugintza-. Euskal Bidea deitu dugun eskaintza hau herri eraikuntzaren -edo herrigintzaren- logikei atxikitako prozesu eratzaille gisa aurkeztu dugu. Argi utzi behar da prozesu eratzailleaz dihardugunean herri/nazio/estatuaren autoeratzale ahaleginaz ari garela, ez haustura unea eskuratzear edo abian den prozesuaren unean.

Funtsean, Euskal Bidea botere eremu berrien antolatze prozesua da, Euskal Demokraziaren eraikuntza. Euskal Bideak Euskal Demokraziaren aldeko egunez eguneko auzolana behar du ardatz, herri eragileen herrigintza lana eta herritarren bultzada determinatua. Burujabetzaren

aldarrikapenari dimentsio materiala eman behar zaio eta egitasmo zehatzen bidez plazaratu. Eta estatugintzaren momentuan kokatu, hots, estatu egiturak eratu, botere gune materialak antolatu. Ez gara ezer berririk proposatzen ari, esan bezala, historikoki Nazio Eraikuntza izendatu dugun strategiaren eguneratzea baino ez. Burujabetza prozesuaren zutoin izango diren egitasmoak definitu eta hauei bide emateko prozesuak artikulatu behar ditugu -arlo ekonomikoan, sozialean, kulturean zein bakegintzan-.

Euskal Bidearen dimentsio *herritar* hau status juridikoen eguneratze/trinkotze prozesuen orubea izango da. Euskal Bideak hiru prozesu eratzaile proposatu ditu, egungo instituzioak estatugintza prozesuaren abiapuntu eta jokaleku hartuta -4.3. atalean sakontzen da dimentsio *instituzional* honen inguruan-. Bi dimentsioak erabat uztartuta daude, estatugintzaren eta herrigintzaren arteko dikotomia faltsua baita. Bietan jardun behar dugu, orekak zainduz eta ausart jokatzuz.

Euskal Bideak konfrontazio demokratikoa behar du palanka gisa. Izan ere, burujabetza prozesua "liskartsua" izango da ezinbestean, aldeko baldintza objektiboak izanik ere gizarte mobilizatorik gabe nekez egingo baitu aurrera. Herritarrak aktibatu eta mobilizatzeko gizartea polarizatuko duten prozesuak behar dira, eta, beraz, konfrontazio demokratikorik gabe nekez lor daiteke prozesu independentistak eskatzen duen tentsio soziala.

Konfrontazio demokratikoa nola ulertzen dugun argitzea komeni da puntu honetan: Konfrontazio demokratikoa euskal herritarren gehiengoaren legitimitatea demokratizazio prozesua oztopatzen duten botere formal zein faktikoen aurrez aurre jartzean datza, legitimitateen arteko talka bilatuz. Euskal instituzioen erabaki desobedienteak zilegiztat hartuta, helburua erdietsi -euskal botere politikoaren gailentzea- eta erreakzio errepresiboak partzialki edo osoki neutralizatu ahal izateko, konfrontazio demokratikoak gehiengo sozialen aktibazioa behar du.

Horretarako, diskurtsoak eta mobilizazio ekimenak baldintza material zehatzen gainean eraiki behar dira. Non izango dira epe laburrean Euskal Herriaren eta euskal herritarren arreta eta kezka guneak? Zeintzuk dira burujabetza prozesuaren palankak? Lan-harremanen esparrua, pentsioak, garapen eredia, hezkuntza sistema... Honek azterketa eta prospekzio lan sakona eskatzen du. Konfrontazio demokratikoa gai hauen inguruan artikulatu beharko litzateke emankorra suerta dadin.

Aldi berean, kontutan izan behar dugu herritarrak ezin direla mobilizazio egoera permanentean bizi. Mobilizazio prozesuak ez dira linealak; uhinen dinamikaren antzera, aktibazio momentuak eta geldiuak izaten dituzte. Determinazioa bezain garrantzitsua da pazientzia estrategikoa.

Bestalde, Prozesu Independentista Eraldatzaileak kontrabotere espazio bat ere barnebildu behar du bere baitan, identitate subalternoen presentzia, mugimendu indartsu eta biziak. Independentismoak praktika emantzipatzaile gaurkotuak behar ditu, ezkerreko ikuspegietatik burujabetzaren errelatora sektore sozial berriak erakartzeko gai izango diren praktika politiko erradikalak. Gure ustez ondoko ezaugarriak bildu beharko litzuzke espazio honek: (1) Kontrabotere posizioetan autoeratzen da, egungo botere harremanak ulertuz periferian egotearen kontzientzia du. (2) Herri eraikuntzarekin, Euskal Demokrasiaren eraikuntzarekin konprometitzen da: kontrabotere izanik botere hegemonikoa irabazteko/borrokatzeko bokazioa du, edota herri eraikuntzan posizio hegemonikoak irabazteko anbizioa du.

Bukatzeke, euskal nazio identitatearen errotzea eta zabaltzea –naziogintza– hautabide independentistan nola kokatzen dugun argituko dugu: Kontakizun independentista berrian nazio identitateaz gain beste elementu ideologiko batzuk ere baliatu behar ditugula esan dugu arestian –gizarte justizia, berdintasuna, demokrazia, etabar–. Euskal nortasunak, eta bereziki euskarak, balio erantsia ematen dio prozesu independentistari, zalantzarik ez. Prozesu politikoarekin batera euskarak eta euskal identitateak aurrera egin dezan diskurtso eta praktika berriak beharko ditugu. Finean, euskal nazioa euskal estatugintza prozesuan hegemonizatu nahi dugu. Nola egin hegemonia prozesu hori? Hori da etengabe gaurkotu beharko dugun gogoeta.

4.2.1. Jardunbideak

Lau jardunbide identifikatu ditugu, aurrera begira borroka moldeak eta praktika politikoa zehazteko helburuz.

Herri aktibazioa

Artikulazio hegemonikoen behar-beharrezko dituzten polarizazio/mobilizazio prozesuak gizarte zibilean sustraitzen dira, eta, beraz, herri mugimenduari demokratizazio prozesuaren baldintza sortzaile eta berme izatea dagokio hein handi batean, instituzioak baldintza berri horiek egikaritzera bultzatzearekin batera.

Aurrez aipatu denez, fase honetan, erresistentzia jarduerak agortutzat eman gabe, egitasmu alternatiboen eraikuntzak hartu behar du nagusitasuna. Maila orotako eragiletzan –soziala, kulturala, intelektuala, akademikoa...– ekarpen determinantea eta iraunkorra egiteko prestatu behar dugu. Ekintzailtza sozial sendoa behar du prozesu independentistak, eguneroko txinaurri lana. Orain arteko esperientziak berrikusi eta birsortzeaz gain, praktika emantzipatzaile gaurkotuetan esperimentatzeko prestatu behar gara.

Horrekin batera, burujabetzaren aldeko dinamika politikoa elikatuko duten mobilizazio, protesta eta desobediencia eredu berrietan sakondu beharko da.

Instituziogintza herrigilea

Euskal estatugintzak, beste edozein prozesu emantzipatzailek legez, mobilizazio eta instituzionalizazio prozesuen arteko etengabeko dialektikan egingo du aurrera. Dialektika horrek instituziogintza molde jakin bat eskatzen du: instituziogintza herrigilea. Instituziogintza herrigilea deritzogu herrigintza senak gidatutako lan instituzionalari, instituzioak demokratizazioaren zerbitzura jartzeko bokazio duen lan instituzionalari. Zentzu horretan, demokrazia parte-hartzailearen bideetan sakonduz, parte-hartze prozedurak herritarrak ahalduntzeko tresna dira, ez gobernu erabakien legitimazio soilerako mekanismoak.

Bestalde, instituzioen eta herri mugimenduen arteko dialektika birpentsatu beharra dago. Arestian aipatu dugunez, paradigma emantzipatzaile berriek erakusten digute ezin daitekeela herri-boterea estatutik –gure kasuan estatugintzatik– kanpo eraiki, eta beraz, herrigintzaren eta estatugintzaren –herri mugimenduen eta instituzioen, neurri handi batean– arteko

dikotomizazioa antzua dela. Beraz, euskal independentistek ez lituzkete instituzioak eremu arrotz kontsideratu beharko, demokratizazio prozesuaren funtsezko borroka eremu baizik.

Ikuspegi honek ez du instituzioen eta herri mugimenduaren arteko tentsioa ezabatzen, paradigma berrian birkokatzen baino; funtsean honela adieraz daitekeena: baldintzak badaude, gauzatu itzazu erabakiak –batetik–; sor itzazu baldintzak nik erabakiak gauzatu ahal izateko –bestetik–.

Autoeraketa komunitarioa

Euskal Herriak oso berea du auto-antolaketa-erako joera. Botere politikoa ebatzi zaion herriak bere burua gobernatzeko bide propioak urratu ditu historian zehar, autoeraketa –auto-antolaketa, autogestioa– geure kultura herritarrean txertatzeraino. Atzerago joan gabe, 60ko hamarraldian hasi zen ziklo politikoari estatugintzaren ikuspegitik begiratzen badiogu, herri honek, autoeraketa komunitarioan oinarrituz, estatu egitura ez-formalak sortzeko ahalmena erakutsi duela ikus dezakegu –ikastolak, kooperatibak, komunikabideak...–.

Autoeraketa komunitarioari estatugintza sen indar berrituz heltzeko energia soziala birsortu behar dugu. Esan dugunez, horixe izango baita Euskal Bideraren orubea.

Praktika diskurtsiboa

herri sektore zabalek ideia multzo bat konpartitzeko helburuarekin –hegemonia–, diskurtsoaren eraikuntzak leku zentrala hartzen du egungo testuinguru historikoan. Ideiek, kontzeptuek –diskurtsoek– errealitatea sortzen dute, gizartea polarizatzekeo beharrezkoak diren tresna dira.

Esan daiteke Euskal Bideak marko diskurtsibo egokia ezarri duela: alde batetik, demokraziaren aldeko apustu erradikala jasotzen du –dena erabaki dena aldatu ahal izateko–, eta bestetik burujabetzaren hautua lehen lerrora eramaten du –euskal herritar guztiok ondo bizi ahal izateko–.

Gizarte sektore zabalekin konektatuko badugu, diskurtsoak neurtu, findu eta berrasmatu beharko ditugu. Euskal gizartearen taupada bilatu behar dugu etengabe, jendartearen kezka eta arreta guneetatik abiatuz ortzemuga berriak eskainiz.

4.3. Norabide independentista proposamen taktikoetatik garatuz

Ez gara ari kolpe bakarreko prozesu batez, azken helburu zoragarria aldarrikatzera mugatzen dena. Bidea ere oso garrantzitsua da, bi zentzutan: prozedura demokratikoan egingo dugu indarra –erabakitzeko eskubidea, herritarren ahalduntzea eta subjektu politikoaren osaketarako urratsak– eta egoera zehatzei aurre egiteko indar harreman egokiak bilatzen saiatuko gara –proposamen taktikoak–.

Eztabaida behar bezala kokatzeko eta une politiko honetako lehentasun kolektiboak behar beste identifikatzeko beharra daukagu, helburu taktikoen eta estrategikoen arteko lotura behar bezala egiteko eta, aldi berean, bien artean anabasarik ez sortzeko, jakinda, halere, ez garelako fase zurrunez osaturiko prozesu mekanizistaz ari.

Independentismoak indar esanguratsua du euskal herritarren artean, eta erabakitzeko eskubidea erdigunean kokatzen da. Erabakitzeko eskubidea ardatz, status berri bat -autogobernu eta burujabetza gehiago- nahi luketen herritarrak gehiago dira. Beraz, helburu estrategikoak indartzeko eta zabaltzeko bidean, gutxieneko edukiak -nazio onarpena, botere politikoa eta erabakitzeko eskubidea- garatuko lituzketen markoak irabazteko proposamen eta dinamikak ezinbesteko palankak dira. Beti ere eskaera sozial orokorrekin egoki uztartzen badira -babes soziala, etxebizitza, lana, etabar-.

Independentismoa ez da, besterik gabe, diskurtso soilekin hegemoniko bilakatuko. Independentismoak, egiazko alternatiba gisa azaltzeaz gain, harian-hariko dialektika bat -Estatuaren itxikeriarekin talka egingo duen aldebakartasuna- behar du aurrera egin ahal izateko, zabaldu ahal izateko. Hainbat herritar eta sektoreentzat hautabide independentista ondorio izango da, izatekotan, eta ez, guretzat jada den bezala, konbentzimendu osoz arrazoitutako abiapuntu politikoa.

Prozesuaren irismen estrategikoak ez ditu proposamen eta urrats taktikoak ezereztatzen, ezta gutxiagorik ere. Proposamen taktikoak ez dira soilik estatuekin erdibideko adostasuna aurkitu ahal izateko lanabesa, askotan horrela irudikatu bada ere -Alger eta 2005-2007 prozesua-. Proposamen eta urrats taktikoek euskal indarren, eragileen eta, azken batean, herritarren artean adostasuna lortzeko funtzioa ere badute. Eta Ezker Abertzaleak honela ulertu behar ditu: Euskal Herrian adostutako tarteko helburuak lortzeko azken helburuei ekiteko egoera hobea ekarriko luke independentistentzat ere, eta, estatuak tarteko helburu horiek galarazten badituzte, aldebakarreko prozesu independentistaren aldeko indar harremanetan eragin ahalko genuke. Horixe da, bada, independentismoaren aipatu dialektika, aldebakartasunetik Estatuaren ezezkoekin talka instituzionala eta soziala egingo duena, eta gero eta sektore gehiagok independentziaren hautua logikotzat jotzea ahalbidetuko duena.

Bestela, erabakitzeko eskubidearen gehiago hori ibilbide eta bizirik gabeko masa bat izango da, eta independentismoa garatzeko aukerarik gabe geldituko da. Esanguratsua, baina gutxiengoan. Lehentasuna da, beraz, gehiago zabaldu -eta pluralen- aldekatasuna bildu dezaketen helburu taktikoak ondo identifikatzea, harian-harian kontzientzia independentista indartu ahal izateko.

Honenbestez, fase honetan ere nazio -auto-onarpena, erabakitzeko eskubidea egikaritzea eta subjektu politikoaren sorkuntza oinarri-oinarrizko edukiak dira euskal herritarren behar sozial, ekonomiko nahiz kulturei erantzuna emateko. Euskal Bidean barrena, ardatz horietatik proposamen zehatzak egituratu behar dira status berriei buruz -ezin ahaztu eragin gune ezberdinak ditugula, lurralde zatiketak sortutako zaurien ondorioz-, erakundeetan gehiengoak sortzeko asmoarekin eta gero eta protagonismo handiagoa izan behar duen herri mugimenduaren bultzadarekin.

Oinarri horien gainean status juridiko-politiko berri bat negoziatzeko eta adosteko aldebatasunaren ukazioak -ez baitaude baldintzak modu ordenatu eta adostu batean sakoneko erreforma konstituzionala egiteko- aukerak biderkatuko ditu aldebakartasuna, herritarren eta herri mugimenduaren protagonismoa ardatz, are eta gehiago garatzeko, eta independentziaren hautua deblauki indartzeko.

Oinarri-oinarrizko eduki hauen gaineko aldebakartasuna balizko aldebikotasunak baldintzatzeko modua litzateke aldi berean, edo, eztabaida piztuta eta edozein frustraziori aterabide positiboa emanez, jendarte sektore berriak independentismora erakartzeko modua. Aldebikotasun proposamenei eta aukerei Estatuak egin ohi dien ukoak bide berriak eta beste agertoki batzuk azeleratu ditzake.

Halere, gakoa hemen bertan sortutako baldintzak behar dute izan, hutsean saltorik egin gabe; adibidez, Kataluniako prozesuaren kopia hutsa egin gabe. Euskal Herrian jada sortua behar zuen talkak eta Katalunian egondakoak –espero dezagun azken garaiko geldialdia/atzerakada gainditzea lortzea– Estatu espainolak ezarritako giltzarrapoa hausteko bidea osatu behar zuten. Elkar elika ahal zioten, baina toki bakoitzean prozesuak bere garapena izan behar du. Haren itzaletik, gora eta gora ari zenean, ez genuen aurrera egin; ez gaitezen orain han izan berri dituzten arazoei begira tratatuak geratu.

Gehiengo sozialak oinarritzko edukiekiko –onarpen nazionala, erabakitze eskubidea, aldaketa soziala eta autogobernuaren garapena– duen atxikimenduak fase honetako aliantzak zehaztu eta bideratu behar ditu. Ezin gara ibili alde batetik bestera, gaur aliantza abertzalea bilatzen eta bihar aliantza ezkertiarra proposatzen. Oinarritzko eduki horien gainean aldaketa politiko eta sozialaren aliantza dugu ardatz. Nafarroan eginiko urratsaren garapenak erakusten du bidearen nondik-norakoa, oraindik ere oztopoz eta arazoz beterik egongo bada ere.

Lurraldetasunaren afera funtsezko kontua dugu gure estrategia politikoari dagokionez. Euskal Herriaren izaera eta izatea bera ukatzeko, lurralde zatiketa bitarteko nagusi izan baitute estatuak. Lurraldetasunaz ari garenean ez gara soilik lur eremuez ari, herri izateaz eta erabakitzeko subjektu burujabea den adierazpide politiko eta instituzionalaz baizik.

Ipar/Hegoa zauria genuke bat. Inposizio espainiarrak elikatu duen mendebaldeko hiru herrialdeen eta Nafarroa Garaiaeren arteko bereizketa dugu bestea. Frankismoaren amaieran egoera iraultzeko aukera irekita zegoen, baina leihoa itxi ziguten, estatu botere faktikoek ezarri eta PNVren esku-hartzea izan zuen erreforma autonomikoaren bitartez. Ezker Abertzaleak aurre egin zion operazio hari. Izan ere, hil ala biziko erronka baitzen. Bi eremu autonomiko ezartzeak eta beren bat-egitea Madrilgo subiranotasunaren menpe uztea gure herriari egin zekiokkeen zauririk gaiztoenetakoa izan zen, partizioak sortzen dituen mekanismo komunikatibo, sozial, politiko eta instituzionalen eragina izugarria baita.

Gatazkaren konponbidea aldebikotasunetik bilatzeak –negoiazioa izanik horretarako tresna– gure herri izatea ukatzen duen funtsezko zauria sendatzea bilatu zuen, horren alde ahalegin guztiak eta gehiago eginik. Zutik Euskal Herriak estrategia horren amaiera ekarri zuen eta, beraz, Euskal Herria subjektu politiko gisa berreraikitze bide berri bati ekin zion: egun bizi ditugun eremu politiko-instituzionalen arabera berrosatze bidea, hain zuzen, herritarren bat-egite libre eta demokratikoki adierazitakoa oinarritzat hartuz.

Espainiar proiektua Euskal Herrian egonkortzea galarazita, egungo errealitatea dugu abiapuntu. Urteotan metatu diren arazoei eta sortu ditugun aukerak arrakala berri bat ireki dute estatu espainiarrak eraiki zuen partizio mekanismoan. Horregatik, Euskal Bideak hiru eremuetarako prozesu eratzaille bana aurreikusten du, egungo errealitate historikoan eta ireki den fase berriari begira eredurik egokiena delako. Betiere gure orube nazionalaren eta herri aske egiten gaituen zutoin nagusien osatze eta trinkotze zereginari arreta eta energia bideratuz.

Hautabide independentistak, beraz, estatus politiko maila berriak eskuratzea ekarri beharko luke, horien barnean estatu-izaera aitortua bera legoke, azken estadioa. Hiru eremuko prozesuak zera dakar, ezin daitekeela bermatu pausu guztiak lurralde guztietan batera emango direnik. Hori guztiz barneratua izan dugu betidanik Ipar-Hego zauriari dagokionez. Ez dugu hori aintzat hartu orain arte Hegoaldeko eremuan EAE-Nafarroa zauriari dagokionez, eta horrek argitasun galera handia ekarri dio gure hautu estrategikoari. Izan ere, Alternatiba Demokratikoak jada erabat zehaztu zuen gatazkaren muin politikoaren erresoluzioa Euskal Herrian bertan burutu beharreko prozesuaren baitan zegoela, euskal herritarrek libre eta demokratikoki inolako injerentziarik gabe hartutako erabakien baitan.

Euskal Bideak, Euskal Herriaren egituratze instituzionalari dagokion atalean, logika hori azken bururaino eramaten du. Euskal Herriaren autoeratzeko eta autodeterminazio prozesua hiru subjektu erabakitzaileen dinamikan oinarrituriko bat-egite prozesu gisa marrazten du. Lurraldetasunaren aferaren korapiloa askatzeko moldea sakonki eraberritu dugu horrela, erabakitzeko eskubidea jarriz erdigunean. Hiru prozesu berezitu barnebilduko dituen prozesu bateratzailea proposatzen du Euskal Bideak, subjektu politiko osoa eta goren mailako nazioarteko estandarretan aitortua sortzeko norabidean. Hiru abiapuntu ezberdin, beraz, hiru erritmo-abiadura, etapa eta prozedura propioak, kontsulta eta galdera egokituak, baina helburu eta norabide bakarra: euskal herritar guzti-guztiak Euskal Herriaren etorkizun politikoaren jabe izatea, erabakitzaile askeak.

2015. urteko urtarrilaren 24an EH Bilduk eta EH Baik plazaratu zuten proposamenak eremu juridiko-administratibo bakoitzean lurra hartzeko garaia du. Esan bezala, Euskal Bidea hiru prozesu eratzaileen prozesu bateratzaile gisa definitu genuen, hots, Nafarroa Garaia, Ipar Euskal Herria eta Arabak, Bizkaiak eta Gipuzkoak osatzen duten autonomia erkidegoa abiapuntu gisa hartuta, abiadura, fase eta prozedura desberdinak izango dituzten hiru prozesu eratzaile proposatuz.

EH Baik Ipar Euskal Herriko kasuan, eta EH Bilduk Nafarroa Garaiko eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako autonomia erkidegoko kasuetan, bertako herritarrekin eta gainontzeko eragile politiko eta sozialekin batera, prozesu eratzaile bakoitzaren ezaugarriak eta urratsak erabaki beharko dituzte. Ezker Abertzalearen iritziz, prozesu eratzaile bakoitzak mugarik gabeko burujabetza ariketa izan beharko luke, prozesu horiek osatuko duten bidea eremu bakoitzeko herritarrek erabakiko dutelarik. Bat egiteko asmoz emango diren urrats guztiak erabakitzeko borondate horren emaitza baino ez dira izango.

Zatiketa zauriak ahalik eta lasterren ixtea ere bada gure hautabidearen funtsezko ezaugarria, noski. Hego Euskal Herriko bi eremuen arteko joste instituzionalaren bidez, lurralde artikulazioan aurrerapausoak lortzea lehentasunetako bat da guretzat, baina horrek ez du inolaz ere zalantzan jartzen subjektu politikoa osatzeko oinarria, eta bat-egite librearen irizpideak bateratze instituzionalaren ondoren ere balio osoa mantenduko du. Proposatzen dugun estatu konfederalaren ereduak botere partekatuaren eskema lehenetsiko du.

Prozesu eratzailea egungo hiru eremuetarik abiatuta ere, ezin dezakegu ikuspuntu nazionala galdu. Horregatik, ehuntze nazional hori harian-harian lantzeko ekinbide sozialak eta instituzionalak indartu beharko dira. Burujabetzaren aldeko indarren ekimen bateratuek, edota herri mugimenduak josten dituen harremanek eremu komuna indartu behar dute. Euskal Bidearen dimentsio *herritarra* deitu diogu honi.

Udalbiltzak joka dezakeen funtzioa garrantzitsua da, Euskal Herri osoko hautetsiak biltzen baititu. Orain, bestalde, mugaz gaindiko harremanetan aukera berriak sor daitezke. Hiru entitate administratiboen arabera banaketari begira panorama aldaketa deigarria gertatzen ari zaigu: Nafarroan beste gobernu bat dago, eta Iparraldean ordezkatu duen egitura instituzional bat sortuko da lehen aldikoz. Aldaketa hauek, mugaz-gaindiko harremanen esparruan, Europar Batasunaren eremu juridikoan, pauso berriak egiteko baldintzak sortu ahal dituzte.

4.4. Gatazkaren ondorioak, konponbidearen lerroa

Balantzean ikusi bezala ez dugu ziklo berria erabat ireki eta ezin izan dugu aurrekoa itxi. Kontraesan horretan ito nahi gaituzte. Baina guk aurreko zikloa itxi behar dugu eta berria garatu. Horiek, halere, ez dira bata bestearen atzetik etorriko. Ezin izango dugu gatazkaren ondorioak gainditu eta segidan arazoaren muinari ekin. Eskema horrek porrot egin du.

Bestalde, gatazkaren ondorioekiko, hau da, armagabetzea garatzeko eta iheslari eta presoak etxeratzeke, lehen lehenik presente izan behar dugu estatu espainiarrak konponbiderako ez duela borondate politikorik.

Estatu estrategia da, ez da alderdi edo kolore bateko gobernuaren politika. Irakurketa partekatu baten ondorioa da. Eta guztiaren oinarrian dagoena irabazle/galtzaileen kontakizunaren politika da. Irabazlearen kontakizuna inposatzea helburu duen estrategia eta konponbidearen aurka garatzen ari dena. Konponbidearen alde eginez gero estatu espainiarrak halabeharrez gatazkaren muinean dagoen aferari aurre egin beharko lioke eta ez du horretarako inolako borondaterik, proiektu politikoen arteko baldintza berdineko lehia demokratikoa ahalbidetuko lukeen esparrurik nahi ez duelako.

Denborak argiki erakutsi digu finkatutako ekinbidea egokitu beharra dagoela, eta ondorio batzuk argiak dira:

- Ezin gara alde bikotasunaren zain egon. Ez dugu baztertzeko, aldarrikatu behar dugu, baina ez politikoki horretara mugatuz.
- Preso eta iheslarien etxeratzea prozesu politiko orokorrean uztartu behar dugu.
- Faseetako estrategian baino burujabetzaren eta independentziaren aldeko prozesuaren garapenaren baitan kokatu behar dugu ondorioen konponbidea.

Labur esanda: Gatazkaren ondorioen konponbidea estrategia independentistan uztartu behar dugu.

Egokitze horrek ez du inondik inora esan nahi preso eta iheslarien etxeratzea lehen mailako helburua ez denik Ezker Abertzalearentzat, eta ahalik eta epe laburrenean gure artean izan daitezkeen borrokatzen jarraituko dugu. Hori bai, estrategia politiko independentista eraginkor eta emankorra izan behar duenari uztartuta.

Burujabetza prozesua azkartzea izango dugu, beraz, aurreko zikloa ixteko modua. Burujabetza eskuratuz -berezko boterea eta zilegitasuna- lortu ahal izango dugu preso eta iheslari politiko independentisten kaleratzea. Horretarako funtsezkoena herri mobilizazioa indartzea da, bidea azkartzeko eta bidearen ezaugarritzean laguntzeko. Lan politikoak eta lan juridikoak beharrezkoak diren beste bi ardatzak izango dira.

Zentzu horretan, eragile ezberdinen parte-hartzea ezinbestekoa da gatazka politikoaren ondorioen konponbidean. Ezker Abertzaleak berebiziko garrantzia ematen dio euskal jendartearen parte-hartzeari.

Euskal Presoak etxeratzeke, indar okupatzaileak bidaltzeko edota askatasun demokratikoak bermatuak izateko, adibidez, bultzada erabakigarria herri mugimenduaren eraginaren baitakoa izango da. Ez dago zalantzarik herritarren ekinak, mila eratako konpromisoetan adierazten den ekintzak, lortuko dituela helburu horiek. Eta horretarako herri mugimendu ahalik eta zabalena eratzea da helburua, herri eta auzo mailako antolakuntzan inbertsioa eginez.

Plano politikoan, gatazkaren ondorioen konponbidea estrategia politiko orokorraren, hau da, estrategia independentistaren garapenean uztartu beharko litzatekeela diogu. Euskal Preso Politikoen Kolektiboak ildo horretan birkokatu behar du bere burua.

Plano juridikoan, aurrez aurre zer agertoki dugun kontutan izanda, gatazkaren ondorio guztiei bide honek eskaini ahal dizkion irtenbideak kontuan hartu beharko dira. Preso eta iheslarien etxeratzeke planean esaterako, legediak eta neurri juridikoek izango duten papera presente izan beharko dugu. Presoen kaleratzea mahai baten bueltako akordioaren eskutik emango ez denez legediaren garapenetik eman beharko da, 2013an Euskal Preso Politikoen Kolektiboak hartutako ildoak garatuz.

Beraz, eremu juridikoa -penal zein penitentziarioa- erabili beharreko bidea izango da, beti ere damutzearen eta salatzearen marrak alboratuz. Izan ere, bata zein bestea euskal presoan aurka, eta soilik beren aurka, erabiltzen diren salbuespenezko neurriak direlako, pertsonaren duintasunaren aurkako bidegabekeriak gauzatzeko eta gure herriaren normalizazio politikoak oztopatzeko traba besterik ez direlako. Salbuespen politikak bezala, salbuespenezko legedi barneko neurriak baztertu behar dira.

Bestetik, eta burujabetza prozesuaren logikan eta konponbideari ekarpena eginez, preso gaia marko juridiko-politikoaren eztabaida eremura ere eraman behar da; adibidez, presondegiatako eskuduntza lekuz aldatzeko borrokari ekinez.

Testuinguru honetan, amnistiaren aldarriak aipamen bat merezi du. Amnistia Ezker Abertzalearen sorreratik bertatik gaurdaino euskal askapen borrokaren geneetan txertaturik iraun duen eta esanahi politikoak duen helburua da. Preso eta iheslarien etxeratzea ez ezik, gatazkaren arrazoiak gainditzea bilatzen duen planteamendua da amnistia. Horrela, nazio aitortza eta gure etorkizuna libreki erabakitzeko -autodeterminazio eskubidea gauzatzeko- ukapenaren gainditzearekin batera eman beharreko agertoki gisa ulertu izan dugu amnistia, espetxeen ateak ireki eta preso askatzearen kontzeptio legal hertsuaren gainetik.

Amnistia aldarrikapen bat ez ezik, prozesu politiko bati loturiko ibilbideak eraiki behar duen agertokia da. Hari horretatik tiraka, egun aldebakarreko prozesuaren bidez garatu nahi dugun

prozesu independentistaren baitan gauzatzeko bide orria marraztea dagokigu. Joko zelaia Euskal Herrian kokatuz, presoak Euskal Herriratzearen aldeko indar korrelazioan kokatu behar dugu estatuarekiko konfrontazioa, ekinbide horri lehentasuna emanez.

Akordio politikoaren ondorioz espetxeen ateak zabaldu eta gatazkaren ondorioei dagokien bide orri partekatua erdiesteko ezintasunaren aurrean –estatuaren borondatea muga izanik eta prozesu independentista alde bikotasunean ez blokeatzeko arrazoiei helduta– presoek Euskal Herriratzeari lehentasun politikoa behar du izan amnistia agertoki politikoa gisa ulertu eta gauzatu nahi dugunontzat.

Euskal Herriratzeko antolatutako presioak Euskal Herrian bertan akordioaren aroari ateak ireki eta preso eta iheslariak kaleratzeko borrokaren garapenera eman behar dio segida, zeharka burujabetzaren ideia indartuz horrela: Euskal Herrian eraikiko ditugu baldintza politikoak amnistiaren gauzapena eman dadin, blokeorako giltza estatuei eman baino hemengo indar harremanen eta akordioaren bidez gauzatu.

Esan dugunez, burujabetza prozesuan eta “Bakerako Euskal Bidean” sakontzea da blokeo egoera pitzatzeko dugun biderik eraginkorrena. Estatuari baldintza demokratikoak exijitzetik Euskal Herrian gauzatzeko mekanismoak ezartzera igaro behar gara, gatazkaren muina eta sortutako ondorioen konponbidea Euskal Herrian eman dadin borrokatuz.

“Bakerako Euskal Bidean” jasotzen den ibilbidea zehazten da jarraian:

4.4.1. Euskal preso eta iheslariak etxeratzea.

Esan bezala, lehen mailako helburu politikoa da, eta horretarako indar metaketa eta eraginkortasuna behar dira. Gure ibilbidea konpartitu duten eta ez duten guztien indarrak batu behar dira horretarako.

Fase honetan, legedia errealitate politikoa berrira egokitu behar da eta salbuespeneko zigorrak, espetxe eta auzibide politikoa legedi arruntera itzuli beharra dago.

Euskal Preso eta Iheslarien etxeratze prozesua ahalbidetzeko, bai alderdi politikoa eta eragile sozialen artean, bai instituzioetan akordio zabalak erdiestea lehenetsiko da, beti ere akordio horietan Euskal Preso eta Iheslarien parte hartzea bultzatuz. Errepresaliatuen izenean EPPK-k eta EIPK-k hitz egiten dute modu kolektiboan. Haiei dagokie estrategia honetan bere burua kokatzea, eta Ezker Abertzale osoak tresna eta mekanismoak sortu beharko ditu horrela izan dadin.

Presoen kasuan, beraien etxeratze prozesua lege baliabideak erabiliz eta bakarkako aplikazioarekin egitea bultzatuko da, horretarako “baldintzapeko askatasun aurreraturako” kaleratze programa bat abian jarri.

Euskal Iheslariari dagokienez itzultze prozesua erraztuko da. Horretarako, batetik, auzirik ez dutenen egoera erregularizatzeko prozesu bat abiatuko da eta bestetik, auziak dituztenen egoera erregularizatzeari dagokienez, hori arautuko duen legedi espezifiko bat egitea bultzatuko da. Aldi berean, prozesu independentistaren beraren erronka bihurtu behar da presoek eta iheslariaren etxeratzea ere.

Presoen gaia marko juridiko-politikoaren eztabaida eremura ere eraman behar da, adibidez, presondegietako eskuduntza lekuz aldatzen saiatuz. Neurri horrek, presoen Euskal Herriratzearekin batera, Euskal Herriaren esku utziko luke presoen gaineko hitza eta erabakia.

4.4.2. Biktimak, elkarbizitza eta memoria

Biktima guztiek eskubide berberak dituzte aitortza eta erreparaziorako, eta baita gertatutakoa ez errepikatzeko bermeari dagokionean ere. Giza eskubideen urraketa guztiak bilduko dituen datu base bat egitea planteatzen da.

Biktimek, eta jendarteak orokorrean, egia ezagutzeko dugun eskubidean oinarrituta “Egiaren Batzorde” bat sortzea ere planteatzen da, egia osatzen duten egia guztiak ezagutzea funtsezkotzat jotzen delako. Biktima guztien errekonozimenduaren eta egia osoaren aldekoa da Ezker Abertzalea, jakinda ere, gatazkaren kontakizun bakar-bakarra ezin izango dela egin. Gutxieneko oinarri konpartitu batzuk lortu beharko lirateke.

Nolanahi ere, azpimarratu behar da biolentziarena eta biktimena ez dela iraganeko kontua, gaur-gaurkoa baizik, estatuak indarkeriari eusten baitiote, haien basakeria amnistiatua baitute eta egindako kaltearen onarpenik egiteko imintziorik ere ez baitute egin.

Ezker Abertzaleak ezin ditu onartu, atzera begirako irakurketa kritikoaren aitzakiarekin, bere buruaz –printzipioez, proiektu politikoaz eta ibilbide osoaz– arnegatzea eta egia ez dena onartzea. Gatazkaren erro politikoa ukatzea eta egindako ekarpena txartzat jotzea.

4.4.3. Armen deuseztatzea eta armategien desegitea

Bistan da ETAk duen protagonismoa eta erabakitze gaitasuna gai honetan, baina egia ere bada konponbidearen alde dauden eragileen –bertako zein kanpokoek– inplikazioa behar-beharrezkoa dela. Inplikazio hori, gainera, ez da ulertu behar soilik armagabetzearen gaian, eta agenda osoari aterabidea emateko gogoia islatu behar du; are gehiago gobernuek orain arte azaldutako jokabide zekenari eusten diotelarik.

“Bakerako Euskal Bidea” dokumentuaren arrastoa ahantzi gabe, armen deuseztatze eta armategien desegite prozesua burujabetza prozesuaren parametroetan koka daitekeela esan daiteke.

4.4.4. Indar okupatzaileen irteera

Fase politiko berrian borroka ideologikoan indar handiagoa egin beharko litzateke, Euskal Herriak jasaten duen muturreko militarizazioak ez baitu inolako aitzakiarik, Espainiaren eta Frantziaren nagusitasuna azaltzea ez bada. Horrekin batera piztu daiteke herri mugimenduaren ekinbidea, herri batzuetan egin ohi den moduan.

Eremu instituzionalean ere aukera berriak sortu dira, batez ere erakundeen autogobernuaren inguruko eztabaida pizten bada eta Nafarroako Gobernuko aldaketa egonkortzen bada. EAEko Autonomia Estatutuak dioena ere bete ez duten honetan, norabide horretako jardun instituzionalak bete-betean asmatuko luke gaur egungo errealitatearekin.

4.4.5. Errepresioa eta askatasun demokratikoak

Esan bezala egungo fase politikoan estatuen bortxa ez da desagertu, molde eta formaz eraldatu dela esan dezakegun arren. Norabide honetan, estatuen injerentzien aurreko herri harresia eraikitzen jarraitu behar dugu, orain arte gatazka politikoa ulertu dugun klabeetan kokatzen diren erasoen aurrean batetik, baina baita eraldaketa sozialari begira egindako egitasmoetatik - greba orokorrak...- egon daitezkeen erasoer aurre egiteko ere.

Askatasun demokratikoen eremuari bere integritasunetik heltzen hasteko ordua dugu, besteak beste polizia eredia, espetxe politika eta justizia eredian inguruko gogoetetan sakondu eta eraiki nahi dugun estatu ereduari bide ematen jarraitzeko.

4.4.6. Ezker Abertzalearen funtzio zehatzei begira

Gatazkaren konponbidean Ezker Abertzaleak konponbide demokratikoaren aldeko jarrera etengabea eta ukazina garatu behar du, herri prozesua sustatuz, bere buruaren inguruko autokritika iraultzailea eginez eta adostasunak lortzeko borondate irmoaz.

Horrek ez du ukatzen gatazkaren parte aktiboa izanik jarrera neutraletik begiratu diezaiokegunik gatazkaren ondorioen konponbideari, edota zehatzago gure ekinbide propioa garatu ezin dugunik. Are gehiago, azken hau funtsezkoa dugu herri honetan gertatu dena kontatzeko errelatoari begira, egun konpondu beharreko ondorioei begira, eta ireki nahi dugun prozesu independentistari berezko ekarpena egiteari begira.

Bide horretan, gatazkaren izaera politikoa aldarrikatuz, gure errelatoan sakonduz eta preso eta iheslarien aldeko mezu propioak garatuz urrats berriak egiteko baldintzak sortu beharko ditugu.

5. ANTOLAKETAZ HAUSNARTZEKO IRIZPIDEAK

Lehenik eta behin esan behar da txosten honek ezin duela inoren erabakirik hartu. Ezker Abertzaleko antolakundeek beren kongresuak edo batzarrak izango dituzte, eta horiek izango dira erabakiak hartzeko leku egokiak eta zilegiak. Abian prozesu honek gogoeta eremu orokor bat, fase honetan aurrera egiteko norabidearen ardatz nagusia, eta gai ezberdinetan irizpide batzuk proposatu eta finkatu nahi ditu, guztien artean partekatuzko eta gerora egokitzapenak egiteko. Eztabaida honek militante bakoitzak bere antolakunde kongresurako edo batzarrerako hobeto prestatzeko ere balio

beharko luke, beste batzuekin egindako hausnarketa gune hau aprobetxatuz. Argudioak emateko, hartzeko eta partekatzeko ordua da, militante soil gisa, erabaki zehatzik hartzeko premiarik gabe.

Antolakuntza ereduak, ibilmoldeak eta hori dena blaitu behar duen kultura politikoak estrategiari eta ildo politikoari lotuak egon behar dute, baita prozesu politikoaren eta jendartearen garapenari ere. Eta hortxe izan du Ezker Abertzaleak arazoan iturburuetako bat, ez duela estrategia berrituak eskatzen zion tamainako eraldaketa egin. Edo egiten hasi. Halako prozesuak, jakina, ez dira egun batetik bestera edota kontraesanik gabe burutzen, kultura politikoa ez baita esate hutsarekin dinda eraldatzen. Baina aldaketak abiarazi behar dira, oinarriak jarri behar dira, eta oinarri egokiak jartzeko aurreko praktika eta inertzia txarrak alboratzen hasi beharra dago. Abian prozesuak hori ere izan nahi du.

Txosten honetan ez ditugu zerrendatu, baina jasotako ekarpen asko eta askotan barne funtzionamoldeez eta zuzendaritza politikoaren gabeziei buruzko arazoak mahaigaineratu dira, era gordinean eta kritika zorrotzak bideratuz. Horiei konponbideak ematen hastea izango da hausnarketa prozesu honen balioaren neurgailu, bertan jokatuko baitu sinesgarritasuna.

Aipatu dugunez, praktika politikoa gauzatzeko erabiltzen ditugun lanabesek eta moduek estrategiaren eta fasearen ezaugarriak lotuta egon behar dute. Gaur egun, bistan da, hautabide independentistaren aldeko indarrak askatzea da erronka, eta hori ez da egingo abangoardismotik eta dirigismotik, kontsigna hutsez eta jendearen parte-hartzerik gabe. Estrategiari buruzko atalean esan dugunez, gainera, burujabetza prozesua ez da gure ibilbide historikoaren berrespen hutsa izango, eta printzipio bera aplikatu daiteke antolakuntzaren eta kultura politikoaren alorrean. Aitzitik, iragana baduen mugimendu politiko bat gara, eta hori kontuan hartu behar da, batez ere kanpoko ereduak ez inportatzeko mimetikoki.

Estrategia eta fase honek Ezker Abertzaleari eskatzen dizkioten funtzioak anitzak dira eta osotasun konplexu baten arabera ulertu behar ditugu gure erantzunkizunei egoki erantzun nahi badiegu. Funtzio nagusiak honako hauek dira:

- Gure egitasmo estrategikoaren aldeko herri indar eta ahalegina etengabe eraberritu, moldatu, sustatu, jasotako ondare politikoari eutsiz.
- Hautabide independentista gorpuztu dadin prozesu sozial oso baten artikulazioaz hausnartu, prestatu, bultzatu era planifikatuan.
- Herri aktibaziotik eta konfrontazio demokratikoak eskatzen duen ausardiatik prozesu horri hauspo etengabea eskaini.
- Beste sektore sozialekiko elkarlan aukerak bilatu eta garatu.
- Nazio dimentsioaren eta dimentsio sozialistaren etengabeko gorpuzte-zereginari ekarpen dinamikoak eskaini.
- EHBILDU/BAI ahalik eta molde irekienean garatzeko baldintzak errespetatu, eta partekatutako eremu horretan hautabide independentistaren lehentasunekin bat egiten duten ildo instituzional eta bestelako dinamika bermatu.

Moldeak funtzioak bezain funtsezkoak dira. Gaingintzat –edo gaingitu beharrekotzat– jo beharko litzateke KAS zuzendaritza eredutik erator daitekeen edozein joera, hau da, abangoardia talde hertsien nagusitasuna baztertu behar da. Oso kontutan hartzekoa da, ordea, aniztasunetik eta inplikazio militante zuzenetik eraikitzen den dinamizazio politikoaren balorea, horretan oinarritutako bateratasun estrategiko sendoa, prozesuak uneoro eskatzen duen determinazio eta malgutasuna elkar jostea, “alderdi gidariaren” eredu hertsia guztiz gaingitzen duen hautua, hain zuzen ere.

Antolakuntzaren eta ibilmoldearen aldagaia askapen prozesuan aurrera egiteko ahaleginean kokatu behar da, jakina, baina dimentsio ezberdinak ditu: helburu politikoak erdiesteko antolakuntzaz ari garenez, antolakundea lanabes bat dela nabarmendu behar da. Ez dela bere horretan helburua, helburuak lortzeko bitartekoa baizik. Halere, hona hemen bigarren dimentsioa, ikuspuntu instrumental hutsa erabiltzea okerra litzateke. Lanabes/bitarteko horrek proiektu politiko askatzailearen isla behar baitu izan, baita –hona beste dimentsio bat– proiektu horrekin bat egiten dutenen etxea ere. Hori dena da garrantzitsua, eta hori guztia hartu behar da kontutan. Hiru erpin horiek gabe ez da orekarik lortuko. Proiekturik eta oinarri sozialik gabeko jarduerak ez luke zentzurik, eraginik gabeko proiektuak eta oinarri sozialak ez luketen modu berean.

Zentzu honetan eta balantzean jaso bezala, zailtasunak ditugu gure praktika politikoan ikuspegi eta ekarpen feminista txertatu eta gure jardueran parekidetasuna bermatzeko. Beraz, aurrera begira ere, bitarteko espezifikoak eskaini beharko dira norabide ezberdinetan: gure proiektu politikoaren integritasuna bermatzeari begira, marraztu dugun burujabetza prozesuari emakumeak lortzeko bitartekoak eskaintzeari begira eta noski, barne funtzionamendua eraldatzeari begira. Eta norabide honetan, erakundeen konpromisoaz gain, ezinbestekoa izango da emakumeen aliantza indartzea eraldaketa prozesu honen motore gisa. Ezker Abertzaleak modu kolektiboan erronka honi aurre egiteko beharra dago. Soilik ikuspegi honetatik eraldatu dezakegu gure kultura politikoa.

Kultura politikoaz askotan mintzo gara, eta beste askotan gertatu ohi den bezala kontzeptua zabalduz bai baina mamia gehiegi argitu gabe. Horregatik, nahiz eta beste zenbait kontu aipatu ahalko diren, sikiera gutxieneko irizpide batzuk emango ditugu, zertaz ari garen irudikatzeko-edo:

- Eredu erabat demokratikoa, erabakiak hartzerakoan eta ardurak hautatzerakoan. Hautaketa sistema berriak erabaki eta arautu behar dira.
- Abiapuntua ondo jartzen bada –apustuaren izaera, strategiaren funtsa, egoeraren gaineko irakurketa–, eztabaidak eta parte-hartzeak indartuko gaituzte. Horregatik, eztabaidak zabaltzeko bideak jarri behar dira, baita erabakietan parte hartzeko aukerak ere.
- Egituraren aktibitateak gardena izan behar du, eta edonork edozein momentutan bere berri izateko aukera izan behar du. Formulak bilatu behar dira. Adibidez, aktak militante ooren esku egotea.
- Antolakundearen jakintza bildu eta edonorentzat eskuragarri jarri behar da. Eztabaidarako, erabakiak hartzeko, kritikarako, ekintza politikorako... militanteek datu objektiboak behar dituzte. Bestela, gaineko arduradunen klon hutsak bihurtzen dira.

- Inprobisazioaren -hasieran- eta fiskalizazioaren -ondoren- orde, elaborazioan eta ondoko balantzeetan egin behar da indarra. Horrek ahalbidetzen ditu autokritika egokia eta zuzenketaren aukera. Bestela, muturreko alternatiba bi geratzen dira soilik: elkarri kontuak ez eskatzea edo sekulako liskarra izatea.
- Egituraren betebeharrak nagusia bitartekoak eta aukerak eskaintzea litzateke, transmisio hutsa baino gehiago.
- Egiturretan liberatuak ez diren pertsonen parte-hartzea eta ekarpena erraztu behar da, horrela beste eremu batzuetan izan dezakegun esperientzia, talentua, gaitasuna... aprobetxatu ahalko litzateke.
- Estrategiaren eraikuntzak ekintza kolektibo bat beharko luke izan. Horrela, hortik ateratako lidergoak -lidergoak behar direlako- askoz ere errotuagoak leudeke.
- Eredu demokratikoa eta parte-hartzailea ez da eraginkortasun ezarekin nahastu behar. Efiakzia eta efiakzia behar dira, praktika politikoa gauzatzeko, lerro politikoa indartzeko.
- Produkzio teoriko-praktikoa. Unean uneko abagunearen azterketa egitea, prozesuaren gako nagusien garapenari buruzko analisia garatzea, zuzendaritzak ildo politikoa zehazteko izan beharreko irizpideak marraztea... lan horiek guztiek sistematizazioa eta iraunkortasuna behar dute. Lanabesak behar dira horretarako.
- Informazioa eta errealtatearen ezagutza. Datu objektiboen gaineko azterketak egin behar dira, hartu beharreko erabakiak eta orientabideak egokiak izan daitezten. Askotan gutxi batzuen pertzepzioaren edota multzo batzuek sortutako harrabotsaren arabera eratutako iritziak hartzen dira nagusitzat. Horrela, topikoak eta egia mugiezinak ere sortzen dira, nahiz eta errealtatearekin egiaztatzerik ez izan.
- Elkarriketa gaitasuna funtsezko osagaia da eraiki nahi diren aliantzak eraikitzeke, saretu nahi diren konplizitateak sartzeko eta gaintitu nahi diren arazoei aurre egiteke. Estrategiaren arlo ezberdinetan -dela konponbide eremua, dela nazio eraikuntza, dela delakoa- garatu beharreko trebetasuna da, eta alor eta eremu bakoitzean ordezkartza egokiak -sinesgarritasuna eta gaitasuna- osatu behar dira.
- Komunikazio gaitasuna. Komunikazio arloa askotan uste baino zabalagoa da -mezua, irudia, bitarteko propioen kudeaketa, hedabideekiko politika...- eta, gehienetan, estrategian aurrera edo atzera egiteke faktore oso garrantzitsua da. Egitura politikoen irizpideei jarraipena eginda, lerro politikoen aplikazio zehatza da. Horregatik, arlo teknikoa -kazetaritzari buruzko ezagutza, *marketing* irizpideen erabilera...- bezain garrantzitsua, edo gehiago, irizpide politikoa da.

5.1. Ezker Abertzalearen egituraketa, erreferentzia nagusi baten beharra

Ezker Abertzalea mugimendu politiko bat da, baita eremu soziologiko bat ere, hainbat jende bere parte sentitzen baita inon militatu gabe ere, lehenago militatu duelako edo bere eguneroko bizian eredu eta ondare partekatu bati segitzen diolako, ekintza zehatzen bidez –mobilizazioetan parte hartuz, boza emanez, herri proiektu batzuk sostengatuz, hedabide batzuei jarraituz eta lagunduz...–, askapen prozesuari ekarpena egiten.

Badira herri proiektuetan edo herri mugimenduetan soilik –direla sektorialak, direla transbertsalagoak– aritzen diren Ezker Abertzaleko partaideak ere. Horiek ere erreferentzia hori behar dute, bi zentzutan lana egiteko: bere ekarria Ezker Abertzalean uzteko eta Ezker Abertzaleko ikuspuntua jasotzeko. Halere, egon daitekeen tentaldi batez ohartarazi behar da, hau da, herri mugimendu osoaren gainean zuzendaritza egitekoa. Halako eskema abangoardistak atzean utzi behar dira, bereziki herri mugimenduz ari garenean. Herri mugimenduaren autonomia aldarrikatu ez ezik, praktikan ere aitortu behar da. Hori garbi utzita, ahalegin berezia egin beharra dago Ezker Abertzaleko oinarri soziala herri proiektu eta herri mugimenduetan aktibatzean, estrategia independentista eraldatzailea garatzeko ezinbestekoa baita.

Antolakundeetako militantzia dago azkenik, ardura eta diziiplina handiagoarekin, lan egituratuagoarekin, eta bestelako betebeharrak/eskubideekin. Arazo asko aipatu da azkenaldian, itolarrian eta goitik-beherako dinamikak janda, bertikalismoa eta eskuordetzea/delegaziokeria eskua emanda dabilzala. Dinamika horiei aurre egin behar zaie, eta ibilmoldeak militantzia modu ezberdinak ahalbidetu behar ditu.

Horrek denak erreferentzia politiko egituratu bat behar du, mugimenduaren kapital politikoa bilduko duena, gainera. Horretarako eratu zen Sortu. Urte hauetako ibilbidean antzemandako hutsune eta akatsak ikusita, Ezker Abertzalearen birfundazio prozesuaren baitan, Sortuk eraberritze ariketa hori egin beharko du urte honetan egitea erabaki duen kongresuan. Abian prozesuan parte hartu dugun guztiok ere eztabaida horretan gogoz inplikatu behar dugu, gure ardura ere badelako; aipatutako kapital politiko eta humano hori isurtzeko eta erabaki marko horren zilegitasuna indartzeko. Estrategiari buruz ikuspuntu integrala izango duen antolakundea dela ezin dugu ahantzi.

Illo honetan, funtsezkoa da antolakunde partikularraren eta mugimendu osoaren, Sorturen eta Ezker Abertzalearen, arteko lotura eta hartueman behar bezala finkatzen asmatzea. Bi norabideko etengabeko elkar elikatzea nahitaezkoa da: batetik, Sortuk askapen mugimendu osotik edan behar du, baita herri proiektu eta herri mugimenduetatik ere, horien dinamikari proiektio politikoa emanez; bestetik, Sortuk askapen mugimendua dinamizatu eta elikatu behar du, herriz herri eta arloz arlo herri prozesua indartuz.

Jakina, ez da eztabaida honen betebeharra horren denaren zehaztapena egitea, baina izandako gabeziak gainditzeko irizpideak partekatzea komeni da, erreferentzia politiko orokorraren jokabideak denoi –bai Ezker Abertzale osoari bai beste eragileei– eragiten baitigu:

- Askapen prozesuaren estrategia orokorrarekiko dinamizazio politikoaren erantzukizuna Sorturi dagokio.
- Hautabide independentistaren baitan, dagokion erantzukizuna ahalik eta eraginkorren eta egokien burutzeko mekanismo zehatzak jarri beharko ditu Sortuk.
- Gauzak horrela, estrategia osatzeko beharrezkoak zaizkion markoak antolatu eta irizpideak elkar trukatzeko mekanismoak martxan jarriko ditu.
- Marko eta mekanismo horien izaera, nolakotasuna eta ezaugarriak Sortuk burutuko duen kongresurako prozesuan zehaztuko dira.

Esan bezala honen guztiaren zehaztapena Sorturen Kongresuari badagokio ere, ezinbestekoa da diseinuaren ardatz nagusienak LAB eta Ernairekin konpartitzea. Bakoitza bere autonomiatik abiatuta, hiru erakundeon arteko elkarlana funtsezkoa da Ezker Abertzalearen proiektua nahiz estrategia garatzeko.

Birfundazio prozesu honetan, beste antolakundeek ere bere buruaz hausnarketa egin beharko dute. LAB, esaterako, bere kongresua prestatzen hasia da, sindikalgintzaren erronka zaharberrituei eusteko eta langileen zein herri sektoreen indarra burujabetza prozesuaren mesedetan jartzeko. Aliantza sindikalean, eremu sozialean zein politikoan, norabidean asmatzea beste betebeharrak garrantzitsuak izango du.

Ernaik ere erronkak eta ibilmoldeak definitu beharko ditu. Abian hausnarketa prozesu honetan behin baino gehiagotan aipatu denez, gazte antolakundea ia ezerezetik birsortutako antolakundea izan da eta belaunaldi oso baten transmisio faltak izugarri eragin du gazte antolakundeak bere estrategia definitu eta egungo une politikora egokitzeko. Aipatu behar da ilegalizazioaren fasea igarota –osorik gainditu ez bada ere– agertoki hau guztiz berria dela gazte belaunaldiarentzat. Borrokan segitu behar du, gazte mugimendutik eta horko dinamika sozial eta politikoetatik ere prozesu independentista elikatzen.

5.2. Indar metaketarako erreferentzi politiko/ instituzional nagusiak

Ezker Abertzalearen apustua garbia da: EH Bildun eta EH Bain ahalik eta sektore gehien pilotzea eta indar horri eraginkortasun politiko zein soziala ematea. Prozesu independentistarako ezinbesteko osagaia da. Beharbada bere formulazio zehatza argitzeko du: fronte zabalaz hitz egin da azkenaldian, baina herritar batasunarena ere izan dezake. Teoria politikoaren alorrean sartzen gara, baina izen abizena baino gehiago, indar bilgune horren izaera da garrantzitsua.

Ez da hauteskunde koalizio hutsa, parlamentuetan eserleku batzuk lortu eta gero koalizioaren indarren artean banatzeko. Beste jokaleku batzuk –mobilizazioa, borroka ideologikoa...– izango ditu, eta horrek beste modu batez definituko ditu, ezinbestean, hainbat egitura, erabaki gune eta betebeharrak bateratuak. Gainera, alderdi jakin batekin identifikatuak ez diren pertsonak edo sektoreek lekua izan behar dute bilgune nagusi horretan. Aniztasuna azken bururaino eramateko erreferentzia politiko da.

Gainera, euskal herritarrei eta gainerako eragileei begira oso funtzio garrantzitsua izango du EHBILDU/EHBAlk, berak bideratuko baititu ezker soberanistaren eskaintza politikoak –proposamen taktikoak eta proiektu independentistak fase honetan behar duen birsortzeko ekarpena–.

Ezker Abertzaleak –zehazki Sortuk– errespetu osoz aritu behar du aliantza horietan. Alderdiak oso paper garrantzitsua dute; besteak beste, jatorri eta eredu ezberdinetatik irismen luzeko bidea adostu daitekeela frogatzen baitute. Autonomismotik, ezker estataletik eta ezker abertzaleko familia ezberdinetatik datozen tradizioak dira. Horregatik oso kaltegarriak dira gehiegizko bateratzeak, edo Sortu gainerakoei gainezartzea. Horien guztien hitzak eta eginak Sorturen modukoak badira edo, bestela, bigarren maila batean geratzen badira, kalte egiten zaio EHBILDU/BAIri. Jakina, horrek beste mota bateko kontraesanak ekarriko ditu, baina bigarren mailakoak izango dira egitasmo nagusia ondo definitua badago.

5.3. Prozesu independentistaren egituraketan, zuzendaritza kolektiboa

Prozesuaren araberako lanabesak eta mekanismoak sortu beharko direla aipatu dugu behin baino gehiagotan. Gure buruari baino harago begiratzera behartuta gaude. Prozesu honek aurrera egingo badu, askatasunaren aldeko borroka honek garaipena lortuko badu, eragile ezberdinen –sindikalak, sozialak, politikoak...– arteko akordioak beharko dira. Bidaide izan beharko dute. Bloke Herritar Independentista deitu izan diogu horri, baina ezin dezakegu pentsa izaera instrumental hutsa izango duenik, Ezker Abertzalearen “zuzendaritza estrategikoaren” irizpidepean arituko litzatekeen zerbait balitz bezala. Gorpuztu behar den dinamika sozial, sindikal eta politiko oso baten adierazlea izango da, horren erreferente politiko eta sustatzaile nagusia. Horixe da Ezker Abertzalearen borondatea eta konpromisoa, ahalegin independentista anitzaren topagune eta sustatzaile nagusi hori bultzatzea eta ahalbideratzea.

Urratsa egin behako da, saltoa eman. Horrek berak osatu beharko du prozesu osoaren zuzendaritza, zuzendaritza kolektiboa. Hautabide independentista geurea baino herri sektore eta beste antolakunde sindikal, sozial eta politikoen zein kultur sortzaile, herri komunikabide edo ekintzaile ekonomikoen hautabidea izatea lortu behar denez gero, zuzendaritza kolektibo hori osatzeak berak eragin hedatzaile/aniztasun sortzaile izango da. Horretan oin hartuta, bere gaitasuna zuzendaritza estrategikoa gorpuzteko eta eraginkortzeko kualitatiboa izango da. Argi eta ozen diogu zeregin hori ez dugula geure, Ezker Abertzalearena, beste batzuekin partekatua baizik. Izan ere, ABIAN prozesuaren aurkezpenean azaldu bezala, enbor beretik baino enbor desberdinetik eraikiko da independentzia-basoa.

**Txostenaren eranskinak
deskargatzeko:**

WWW.EZKERABERTZALEA.INFO